

Kultura

Lara Izagirreraren 'Un otoño sin Berlín' filmaren doako zortzi emanaldi izango dira, urrian, Zornotza Aretoan. > 11



JAIK!

DURANGO



Euskal Herritik Kataluniara begira

Aldarricatuz, Herrialde Katalanetan eta Euskal Herrian lan egiten duen kolektiboko kide dira Josep Sancho eta Estela Pradas. Katalunian bizi den egoera politikoa izan dute berbagai > 10

AEK-ko ikasle jubilatuek ez dute laguntza jasoko

Durangoko AEK-ko jubilatuek Gizarte Ekintzatik jasotzen zuten laguntza galdu dutela salatu dute. Laguntza hori udal euskaltzaira doazenek jasoko dute. > 2

Emakumeen Mundu Martxa Durangon, bihar

Martxoaren 6an Kurdistanen abitu zen Emakumeen Mundu Martxa, bihar, 10:00etan helduko da, Durangora. 11:00etan, manifestazioa egingo dute. > 2



Emakumeen Bira nazioartetik kanpo

UCIk ez du Emakumeen Bira World Tour egutegian sartu. Iritziz aldatu ezik, txirringularitza proba hau nazioarteko ibilbideetik irten egingo da. Agus Ruiz Emakumeen Birako antolatzaileak dioenez, kasu horretan estatu mailako lasterketa antolatuko dute. > 13

hitz #gomendioak
artekalea 14, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

liburudenda



HELDUENTZAT
NOLA BELZTU
BEHAR ZURIA
Joxan Artze, Bide Ertzean
eta Metrokoadroka (2015)



UME ETA GAZTEENTZAT
BIOLINA
A. Rubio, X. Olaso
eta O. Villán (2015)



MUSIKA
435-0
Patzuko Niece (2014)

haurreskola
txanogorritxu

Askatasun Etorb., 2A/2B
Durango
Tel.: 688 819 581
durango@haurreskolatxanogorritxu.com
www.haurreskolatxanogorritxu.com



Izen-ematea zabalik!

Plaza guztietarako diru-laguntzak daude %50eko deskontua matrikulan, eta uniformeak doan. Familientzako laguntza zerbitzua haurrentzako produktuarentzako diru-laguntzekin.

Otxandio > 6

Udala eta Gogora oroimena lantzeko pausoak ematen

Durango > 3

Angelman sindromea duten umeen aldeko jaialdia, bihar

Mallabia > 6

Asteburu osorako egitarauagaz Gazte Eguna ospatuko dute

Mañaria > 6

Mañaria 'Herri txiki, infernu handi' programan agertuko da

 **Herririk herri**

AEK-ko ikasle jubilatuei laguntza berezia kendu die udalak

Juan Carlos Elgezua (AEK-ko ikaslea): “AEKn jarraituko dut, gustura nagoelako”



AEK-ko hainbat ikasle nagusi martitzeneko udal bilkurara joan ziren, eztabaidaren lekuko izatera.

DURANGO Markel Onaindia Euskara ikasten duten durangarrek diru-laguntza daukate matrikularen %50 ordaintzeko, eta, pertsona nagusien kasuan, beste %50 ere jasotzen dute Gizarte Ekintza saileko laguntza bereziari esker. Baina, 45 bat ikaslearen eskariari aurre egin ezinda, zerbitzua AEKra pasatzea erabaki zuen udalak. Orain, ordean, udalak Udala Euskaltegia indartu gura du berriro, eta nagusiek laguntza berezia lortu gura badute, hara joan beharko dute. Izan ere, AEKn jarraitu gura dutenei laguntza kenduko die.

Ikasleak gustura ibili dira AEKn, zerbitzuagatik eta taldeko giroagatik. Juan Carlos Elgezua da bat: “Zergatik ordaindu behar dugu desberdin? Nik AEKn jarraituko dut, gustura nagoelako”.

Bilkuraren amaieran, Amaia Sarrionandiak hartu zuen berba, AEK-ko euskaltegiko arduradunak: “Gu ez gara nor

Gizarte Ekintzako dirua nora bideratu behar den esateko, baina adinekoek transmisioan duten garrantzia kontuan hartuta, trataera bera jaso behar lukete”. Hain zuzen ere, AEK-koek diru-laguntzaren %100 Euskara sailetik bideratzea eskatu zuten, uda aurretik. Hasieran, baietz esan zien Goiztidi Diaz zinegotziak, baina gero, gobernu taldeak aldatu egin zuen erabakia.

Diazen partetik jasotako tratu ez dela “zuzena” izan salatu zuten Sarrionandiak. Ekainetik hona hiru batzar eskaera egin dizkiote, eta, uda ostean, beregana hurbildu behar izan dute gaiaz berba egiteko. Ikasturtea gaur hasten denez, berandu ibiltzea egotzi zion Sarrionandiak.

“Altzariak lez”

EAJk eta PSE-EEK, publikotasunaren alde egitearren babesu zuten AEK-ko ikasleei laguntza kentzea. Díazek arabera, euskalduntzea behar dutenen

kopurua gutxitu egin da, eta orain, Udala Euskaltegiko irakasle taldea zerbitzuari aurre egiteko moduan dago. “Udalarentzat inbertsio bat suposatzen du Udala Euskaltegiak, eta hori sustatu behar dugu”. Pilar Ríosek, Gizarte Ekintzako zinegotziak, azaldu zuen euren asmoa ez dela taldeak apurtzea, baina “baliabideak egoki” erabili gura dituzte. Fran Garatek ere ildo beretik: “Udala Euskaltegiak eman ahal badu, ez gara beste zerbitzu bat ordaintzen ibiliko”. Díazek esan duenez, AEKra doazenez hobariak edukiko dituzte euren errentaren arabera.

EH Bilduko Ion Andoni del Amok aurkeztu zuen hasierako mozioa: “Publikotasunaren alde gaude, baina jendearen alde ere bai. Jendea ezin da altzari bat lez tratatu”. Julián Riosek (Herriarren Eskubidea) ere ikasleen alde egin zuen, eta esan zuen, aldaketa mailakatu eta adostua izan beharko litzatekeela.

Emakumeen Mundu Martxa ailegatuko da

Martxa bihar ailegatuko da Durangora; 10:00etan harrera egingo dute, eta 11:00etan manifestazioa

DURANGO M. O.

Martxoaren 6an, Kurdistanen irten zen Emakumeen Mundu Martxa, eta herrialdez herrialde ibili ostean, Euskal Herrira heldu da. Astelehenean sartu zen martxa Nafarroatik, eta bihar, Durangora ailegatuko da. 10:00etan harrera egingo diote Andragunean, eta 11:00etan manifestazioa burutuko da leku beretik hasita –euria bada, Andra Maritik hasiko dela azaldu dute antolatzaileek–.

Gure gorputzak, geure territorioak, martxan jarraituko dugu libre izan arte lelopean burutzen dabilta martxa. Azaldu dutenez, “inposatutako eredu kapitalista, arrazista eta patriarkalaren aurrean, munduari bizitzeko beste era bat erakustea, aukera feminista erakustea” da mundu mailako mobilizazioaren helburua.

Haziak ematen

Gainera, elikagaien burujabetza da mugimendu feministak martxan zabaldu duen aldarrikapen nagusietakoa, eta

horregatik, ekitaldietan haziak erabiliko dituzte. Durangon, adibidez, haziak emango dituzte harrera ekitaldian.

Andraguneko harrera horretan, Nerea Etxaburu eta Ziortza Jaio txalapartariak, Kristina Mardaras eta Erika Lagoma bertsolariak, Matxalen Ertzilla biolontxelo-jotzaileak eta Bidane Txopitea kantariak parte hartuko dute.

Manifestazioa batukada feministak lagundurik egingo dute, eta, amaieran, dantzarako aukera egongo da Inalvis Etxebarriaren koreografiagaz. Ekitaldi guztiok, Durangoko Bilgune Feminista eta Andereak elkarteek era parte-hartzailean sustatu dituzte, eta martxari harrera egiteko ilusioz daudela azaldu dute.

Udalak, martxagaz bat

Emakumeen Mundu Martxa babes instituzionala ere jasotzen dabil, eta, azken egunetan, Durangoko, Elorrioko eta Berrizko udalek mobilizazioagaz bat egin dute.



Astelehenean heldu zen martxa Iruñera, eta bizikletekin egin zioten harrera.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2015eko urriaren 2a,
13. urtea - 604. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Goretti Alonso Armendia,
eta Itxaso Martinez de
Arenaza Yarza.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
Amaia Ugaldede Begoña.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Mikel Azkarraga Etxegibel.

Laguntzaileak:



“Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua”



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



“Jasotako maitasuna eta laguntza itzuli ezinekoak dira”

Angelman sindromedunen aldeko jaialdia egingo da bihar, arratsaldean, Landakon

DURANGO Markel Onaindia Jonen gurasoak dira Idurre Baraia eta Arkaitz Urretxa, eta Haizearenak Luisma Reyes eta Ainhoa Mendo. Garapen psikomotorea kaltetzen duen Angelman sindromea dute umeek. Jaialdia egingo dute, bihar, Landako Gunean, gaixotasun arraroa ezagutarazi eta ikerketa laguntzeko.

Zapatuko jaialdia badator. Urduri zaudete?

Idurre Baraia: Bai, guztia ondo irtetea, eta jendeak ondo pasatzea nahi dugulako. Gutxi gara, eta gaixotasunak arraro izaten jarraituko du, baina ea ezagutzera ematen dugun, behintzat. **Ainhoa Mendo:** Atzera kontua hasi da, eta espero dezagun guztia ondo irtetea!

Sindromea identifikatzea kostatzen da, ezta?

I.B.: Gure pediatrik beste kasu batzuk eduki zituen, eta bereztzat ez zen ezezaguna. Biok edu-

ki dugu pediatria bera, baina Jonen kasua oso argia da. Hamar hilabetegaz bageneukan diagnostikoa.

A.M.: Haizeari urte bigaz identifikatu diote, urtebete azterketak egiten ibilita. Ez zen hain argia.

Galduta sentitu izan zarete?

I.B.: Oso. Sei hileguz bagenekien arazo psikomotoreren bat zeukala. Txarrena hor hasi zen; ez jakiteak galdera asko eragiten dizkizu, eta zu ere errudun sentitzen zara, parte batean.

A.M.: Diagnostikoagaz mundua erortzen zaizu, baina, era berean, lasaitasuna ere ematen dizu. Beste familia durangar bat ezagutzeak asko lagundu digu.

Zelan daude umeak?

I.B.: Kasu oso desberdinak dira. Joni falta zaion kromosomaren zatia handia da, eta, gainera, zorritzarrez, epilepsia dauka.

A.M.: Udaz geroztik, Haizea oinez ibili ahal da, esku bati hel-

duta. Kontrol gehiago dauka, eta aurrerapen handia eduki du.

Eta zuek, zelan daramazue?

Arkaitz Urretxa: Beste ume bi ere baditugu, eta eurengatik ere, ezin zara hondoratu. Hori bai, besteei azaltzen saiatu arren, bakarrik gaudituz beharrekotranzea da.

I.B.: Hasieran, amorrua ematen dizu, eta egun onak eta txarrak edukitzen dituzu. Baina gure aukera aurrera jarraitzea da, ahalik eta poztasun gehienez, umeak pozik biziko baitira gu pozik bizi garen bitartean.

Poztasuna transmititzeko eguna izango da biharkoa, ezta?

I.B.: Bai, hori espero dugu. Jasotako maitasuna eta laguntza bueltatu ezinekoak dira.

Luisma Reyes: 2.000tik gora pultsera saldu dira, eta 30 bat itsulapiko daude dendetan. Durangaldean jende solidarioa badago. Esker mila denei!



Familia biak, lurretako jolas-parkean, elkarrizketa egin ostean.

Aurkitu zure izarra Durangaldean.

15 urte baino gehiago, Durangalde erdi-erdian, geure bezeroei hurrengo zerbitzuak eskaintzen daramagu:

- Ibilgailu berriak, autoak eta furgonetak
- Bigarren eskuko ibilgailuak
- Mekanikan eta karrozerian osoko tailer-zerbitzua, auto, furgoneta eta kamioiak



AGUINAGA TALDEA

Bizkaiko Mercedes-Benz kontzesionario ofizial bakarra
info@aguinaga.es · www.aguinaga.es

Boroa Industrialdea, 2. Nabea 3
 48340 ZORNOTZA
 Tel.: 94 630 17 47





Irigoras eta Ríos, Durango Eraikitzen-eko Noemí Arroyogaz batera, atzo Lariztorren.

Etxe hutsak alokairuan ipintzeko programa aurkeztu du udalak

Etxe jabeak babestuko ditu programak, eta gehieneko prezioa 500 eurokoa izango da

DURANGO Markel Onaindia Durangon 1.500 etxe hutsetik gora daude, baina jabeak ez dira alokairuan ipintzera animatzen. Eusko Jaurlaritzaren Alokabide programak ere ez du lortu eskaerei aurre egitea; 2015aren hasieran, 375 pertsona zeuden izena emanda, baina 132 etxe zeuden eskura. Egoera ikusita, alokairurako programa pilotu bat lantzea pentsatu du udalak. Aitziber Irigoras alkateak (EAJ) eta Pilar Ríos alkateordeak (PSE-EE) aurkeztu zuten atzo, eta adierazi zuten

etxe hutsen jabe askok beldurra edo aurreiritziak dituztela alokairuaren inguruan. Horregatik, batez ere jabeak babestuko dituen programa da; udalaren bermea edukiko dute kontratua eta etxearen egoeraren inguruan, baita ordainketa faltaren aurrean ere. Etxe hutsetan ezin da inor erroldatuta egon.

500 euro, gehienez

Etxea alokairuan hartzeko interesa dutenek, 12.000 eta 25.000 euro arteko urteko errenta eduki beharko dute. Hori bai, alo-

kairuaren prezioa ez da diru-sarreraren arabera ezarriko; teknikariak etxearen inguruan egindako analisiak esango du zer prezio ezarri. Gehienez, 500 eurokoa izango da. 65 urtetik gorakoei eta mugikortasun arazoak dituztenei etxeren bat jabetzan edukitzea onartuko zaie.

Durango Eraikitzen enpresa publikoak -Lariztorren du egoitza- gestionatuko du programa. Jabeek urriaren 5etik aurrera eman ahalko dute izena, eta etxea behar dutenek, hilaren 26tik aurrera.

Pilar Ríosek Enplegu arloan jarraituko du

Ríos Enplegu arlotik kentzea eskatu du EH Bilduk

DURANGO M. O.

Pilar Ríos Enplegu saileko arduratik kentzeko eskaera egin zuen bilkuran EH Bilduk, baina mozioa ez zen aurrera atera, EAJk, PSE-EEK eta PPK kontra egin zutelako. Horrela, Ríosek arloa gidatzen jarraituko du. Eusko Jaurlaritzak 6.000 euroko isuna ipini dio udalari Enplegu Planean "kontratazio ilegala" egiteagatik, eta proiektu hori Ríosek sustatu zuenez, EH Bilduk uste du sozialistak ezin

duela ardura horretan segitu. Ríosek adierazi zuen EH Bilduk eta ELA sindikatuak "gauza larriak" esan dituztela berari buruz, eta bere alderdia epaitegietara joatea aztertzen dabilela. Gainera, sententzia ez dela irmoa gogoratu zuen.

EH Bilduren ekimenez, aho batez erabaki zuten etorkizuneko planetan udal hitzarmena betetzea. Ostera, EAJ, PSE-EE eta PPK 2016an Lan Publikoko deialdia egitea baztertu zuten.

Kataluniaren erabakitze eskubidea babesten

EH Bilduk ekarri du Kataluniaren inguruko mozioa

DURANGO M. O.

Durangoko Udalak Kataluniaren erabakitze eskubidea babestu zuen martitzeneko osoko bilkuran. EH Bilduk aurkeztu zuen mozioari babes eman zion EAJk, eta Herriaren Eskubideak ere bai, aldaketa bat adostu eta gero.

Gainera, "Espainiako Estatuak gizarte katalanaren ariketa libre hori oztopatzeke egini-ko saiakerak" gaitzetsi zituzten

hiru alderdiek. Ion Andoni del Amok esan zuen kontsulta izango dela arazoa konpontzeko "irtenbide bakarra".

PSE-EEko Mauricio Garcia- ren ustez, ordea, "akordioa da irtenbide bakarra". Gainera, arazo sozialak lehenetsun direla esan zuen. PPKo Fran Garateren arabera, "Kataluniaren zati bati soilik egiten zaio kasu, erabakitzeke eskubideaz berba egitean".

Elkarretaratzea istripua salatzeke, astelehenean

DURANGO Amaia Ugalde Fumbarriko enpresa komiteak elkarretaratzea deitu du datorren astelehenerako, 12:15ean, enpresaren aurrean, aste honetan izandako lan-istripua salatzeke. Zulo baten garbiketa-lanak egiten zebiltzala, produkzioa ez zen eten, eta kutxa batek, urterakoan, sua eragin zuen zulo horretan. Istripu horretan, langile bi zauritu ziren, astelehenean. Sindikatuek, beste behin, Fumbarriko segurtasun neurrien inguruko kezka agertu dute. LABek salatu du astelehenekoa hiru hilabetez izan duten bigarren istripua izan dela. "Enpresa honetan lanerako dauden baldintza prekarioak ozen salatu nahi ditugu". CCOOK berehalako neurriak eskatu ditu, eta Fumbarriko lan-baldintzak "kriminalak" direla baloratu du.

EAJ: "Kontraesana da EH Bilduk orain elkarlana eskatzea"



EAJk Amankomunazgoan dituen ordezkarietako batzuk, prentsaurrekoan.

DURANGALDEA M. O.

EH Bilduko Aitor Lopez da Amankomunazgoko presidente berria, eta kargua hartzeko ekitaldian elkarlanerako borondatea agertu zien beste alderdiei. EAJri "bitxia" iruditu zaio, eguazteneko prentsaurrekoan Goiztidi Díaz zinegotzi durangarrak esan zuenez: "Kontraesana da EH Bilduk orain elkarlana eskatzea. Orain arte, batzorde

batzuetara etorri ere ez ziren egiten". Oskar Zarrabeitia presidente ohiak ere ildo beretik berba egin zuen: "Lau urtean ez dute aurrekontu bat ere babestu".

Edozelan ere, jeltzaleek legealdi berrian "modu eraikitzailean" lan egingo dutela nabarmendu zuen Zarrabeitiak. Gainera, egunotan Lopezi lana erakusten ibili dela aipatu zuen.

Zarrabeitiak adierazi zuen aurreko legealdiaren balantze positiboa egin dutela. Enplegua eta Gizarte Ekintza izan dira euren lehenetsunak, eta azpimarratu zuen gizarte larrialdi egoerarako 281.000 euro gehiago ipini zituztela. Horrez gainera, beste proiektu batzuk ere gogoratu zituen: gazteei lana topatzeko laguntzak, neguko aterpetxea, bosgarren kontainerra edota Euskara Plana. Diazek gaineratu zuen harro daudela legealdian eginiko lanagatik.

Aldaketak datoz, Diazen arabera: "Batzuetan, txarrerako izan direla ikusteko urrun joan behar ez denez, onerako izango direla ziurtatzeko lan egingo dugu".

Elkarlanerako borondatea dutela argudiatzeko, Zarrabeitiak iragarri zuen gizarte larrialdietarako laguntzan 110.000 euro gehiago inbertitzea eskatu diola Aitor Lopezi.


Burdina berba-ondarearen jardunaldietan

DURANGALDEA J. G.

Burdina izango da, aurten, Ondarearen Europako Jardunaldietako gaia. Izan ere, burdina, urteetan zehar, eragile ekonomikoa izan da Durangaldea. Gerediaga elkarteak koordinaturik, Otxandion, Zaldibarren, Mañarian, Iurretan, Elorrian, Garain eta Berrizen bisita gidatuak, erakustaldiak, hitzaldiak eta erakusketak egingo dituzte, urriaren 4tik 25era bitartean. Lehenengo ekitaldia Otxandion antolatuko dute. *Vulkano, burdinaren eta suaren jainkoa* izenburupean, Vicinay Cembisa fabrikara bisita egingo dute. Bigarren irteera, berriz, Zaldibarren izango da. *Eta burdina arma bilakatu zen* hitzaldi erakusketagaz. Igor Goñi Mendizabal izango da hizlaria. Informazio gehiago lortzeko, 684 106 682 telefono zenbakira deitu daiteke.

BERETEK

ARKITEKTO TEKNIKOEN BULEGOA



- Jarduera proiektuak
- Eraikinen patologia txostenak
- Peritazioak
- Legeztapenak

- Birgaitze eta berrizteak
- Obra berriak
- Proiektuak
- Obren zuzendaritza
- Obren gauzatzeko zuzendaritza
- Hirigintza

- EIT-ITE Eraikinen ikuskapen teknikoak
- EET-IEE Eraikinen ebaluazio txostenak
- EEK-CEE Eraikinen energia kalifikazioak

- Aurrekontuak, neurketak, zuinketak.

- Andamiatzeak
- Kalitate kontrola

- Igogailuak eta plataforma jasotzaileak

Tel.: 666 025 143 / 946 812 700

Ibaizabal auzunea, 5 zkia behea · 48200 Durango (Bizkaia) · endikaberetek@gmail.com · www.beretek.es

Udalak eta Gogorak bidelagun izan gura dute oroimena lantzeko

Gogora institutuko zuzendariagaz batzartu dira Urigoitiaren kasua aztertzeko

OTXANDIO Joseba Derteano Udaleko ordezkariak eta Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendari Aintzane Ezenarrok batzartza izan zuten, astelehenean,

Lehendakaritzan. Urtzi Armendariz alkatea (EH Bildu) eta Beñat Gorospe zinegotzia (EAJ) izan ziren udaleko ordezkariak. Biktimen memoriaren testuinguruan, Lutxi Urigoitiaren ka-

sua izan zuten berba. Lehen kontaktu bat izan zen, eta ez zen konpromisorik adostu, baina gaiaren ikuspegi orokorrean bat etorri ziren. “Elkar ulertu dugu”, adierazi du Armendariz



Joan zen asteko udalbatzarrean iragarri zuten, aste honetan Gasteizko Lehendakaritzan izan duten batzartza.

alkateak, eta positiboki baloratu du asteleheneko batzartza: “Alde biok ikusi dugu biktimen memoria jasotzeko obligazio moral bat dugula, eta elkarrekin landu genezakeen gaia dela”. Oro har, “gai hori elkarrekin planteatzea da adostu duguna”.

Aurrera begira, udalak Urigoitia oroitzeke proposamen bat egingo du, eta “hurrengo asteetan eurekin formaturik egokiena zein izan daitekeen ikusten joango gara”.

Lutxi Urigoitia oroitzeke proposamena ahalik eta eragile gehien elkarlanagaz osatu gura du udalak: “Hau ondo egin gura badugu, ezin du udalak bakarrik egin”. Horrela, barikuan, 19:00etan, Andikonako Foroa deitu dute: “Azken batean, elkarbizitzari buruz ari gara, eta Lutxiren kasu konkretua testuinguru zabalago batetik dator. Andikonako Foroa elkarbizitzaren eta gatazka politikoei eragindako min eta ondorioen gainean berba egiteko gune aproposa dela uste dugu”, dio Armendarizek.

Asteburu osorako egitaraua prestatu dute Gazte Egunerako

MALLABIA M.O.

Mallabiko V. Gazte Eguna antolatuko dute asteburuan. Zapaturako, egun osoko egitaraua prestatu dute. 12:00etan bizikleta ibilaldiak zabalduko du astebururako aurreikusitako egitaraua. 14:30ean, berriz, parte-hartzaileak mahaiaren bueltan bilduko dira, bertso bazkarian. Indarrak berri eta gero, 17:00etan, jolasak prestatuko dituzte. 19:00etan, K-Tumk batukadagaz herriko tabernetan zehar poteoa egingo dute. Gauean, Ekaitza eta DJ Nevelen kontzertuaz gozatzeko aukera izango da.

Domekan, urriaren 4an, Txikiren bakarriketak entzuteko aukera izango dute, 19:30ean, Kontzejuzarrera bertaraten direnek.

250 ardi Otxandiotik zehar, hilaren 9an

Garai bateko transhumantzia bideak berreginda, dokumental bat grabatu gura du Getxoko Udalak



Sasoi batean ohikoak ziren transhumantzia bideak. Gerediaga Elkarte-Txelu Angoitia

OTXANDIO J.Derteano Getxoko Udalak sustatuta, sasoi bateko transhumantzia bideen gaineko dokumentala grabatuko dute aditu batzuek. Horretarako, ibilbide horiek berriro egingo dituzte ardiekin. Otxandio transhumantzia bide horietako baten pasabidean dago eta, beraz, bertatik ere igaroko dira.

Urriaren 9an, barikuan, 250 bat ardi igaroko dira Otxandio herrigunetik. Ikusi nahi dituenak goiz esnatu beharko du. Oleta inguruko landa batean emango dute gaua eta, goizean goiz, 07:00 inguruan, Otxandio herrigunea zeharkatu, eta Dimako aireportu zaharrerantz

joango dira, Getxoko Udaletik adierazi dutenez.

Fredi Paia bertsolariak eta Aitor Gisasola errealizataileak proposatutako ideia batean du sorburua dokumentalak. Sasoi bateko transhumantzia bideen nortasuna berreskuratu gura dute. Hainbat ibilbide zeuden, eta horietako bat Gorbean hasi, eta kostaldean amaitzen zen, tartean Otxandiotik igarota. Ibilbide hori lau egunean egingo dute eta, besteak beste, Larrabetzu, Gamiz eta Uribe Kostako hainbat herrigune bisitatuko dituzte. Tarte batzuk kamioiz egin beharko dituzte, baina, oro har, oinez ibiliko dira.

Mañaria, ‘Herri txiki, infernu handi’ saioan

Gurrutzaga eta Pagadi mañariarrekin egon dira

MAÑARIA M.O.

Astelehenean, ETBko *Herri txiki, infernu handi* saioko kideak etorri ziren Mañarira, denboraldi berriko atal bat grabatzen. Egun osoan zehar, mañariarrekin elkarriketak egiten ibili ziren

Zuhaitz Gurrutzaga: “Oso gustura geratu gara, eta dudarik barik, saioa ikustekoa izango da”

Zuhaitz Gurrutzaga eta Mikel Pagadi; Hontza museoan edota Arri-toki jatetxean egon zirena, besteak beste. Horretaz gainera, bat-bateko elkarriketak ere

egin zizkieten herritarrei kailean, Gurrutzagak ANBOTOri kontatu zionez.

Arri-tokin, zerbitzari lanean ibili zen Gurrutzaga, harrobietako beharginei jatekoa zerbitzatzeko eta sukaldekoekin berriketan: “Oso gustura geratu gara, eta dudarik barik, saioa ikustekoa izango da. Herria polit aterako dugu, eta jendea jator-jator”.

Emankizuna, egunean

Grabatutakoa, herrian bertan erakusten dute emanaldi bategaz, eta hori ere grabatzen dute. Emanaldia urriaren 8an izango da, 20:00etan, frontoian, eta telebistako saioa urriaren 18an emango dute, ETB1en.



Gurrutzaga, astelehenean, Arri-toki jatetxean.

Emakumeen prestakuntza eta gogoetarako eskaintza zabala

ABADIÑO I.E.

Emakumeentzako Jabekuntza Eskolaren eskaintza oparoa zabaldu du Abadiñoko Udaleko Bertintasan sailak. Osasun arloko hainbat ikastaro eskainiko dituzte, esaterako; Pelbis-zorua gogortzeko ikastaroa, edo *Zer daki zure gorputzak zuk (oraindik) ez dakizunik?* izenburuko, kasurako. Gainera, jendurrean hitz egiteko teknikak ikasteko, zein *coaching* edo *mindfulness* saioetan parte hartzeko aukera eskainiko dute. Autodefentsa feministako teknikak praktikatu, feminismoaz gogoeta egin, zein gai feministen inguruko ilustrazio tallerrean parte hartzeko aukera ere luzatu diete emakumeei.

Joan zen astelehenean hasi zen Jabekuntza Eskolan matrikulatzeko epea, eta ikastaro bakoitza hasi baino hamar egun lehenagora arte ere egongo da izena emateko aukera. Udalaren www.abadiño.org webgunean eskuratu daiteke informazioa, eta Errota eta Txanporta kultur etxeetan, zein berdintasuna@abadiño.org helbidera idatzita ere eman daiteke izena.

Urriaren hasiko dira Jabekuntza Eskolako ikastaro batzuk, baina ikasturtean zehar abiatuko dituzte beste hainbat.

EDERTASUN GIDA



Amaia Salazar. Nukleo.

Gure ilerako estiloak, udazkena etortzean

Elorriko Nukleo ile-apaindegiko Amaia Salazarrek orain datozen estiloen inguruko joerez berba egin digu, besteak beste.

Ze estilo etorriko dira udazkenarako?

Batez ere, estilo bi markatu direla esango nuke. Batetik, ilea sorbaldaraino eramatea, bai kapa luzekoa bai kaparik bakoa. Bestetik, justu kontrako estiloa: ile oso desfilatuak, eta kapa laburrekin.

Eta, koloreei dagokienez?

Kolore beroagoak eramango dira udazkenean: kobrea, urrekara, txokolatea, urra...

Baina, ez da komeni arau bati lar lotzea, ezta?

Ez, noski! Aukera ugari dugula jakin behar dugu, batez ere, eta bakoitzaren aurpegiaren eta izaeraren arabera moldatu ahal ditugula aukera horiek.

Oraindik uda pasa berri gaude. Zelan zaindu behar dugu ilea?

Uda osterako hoberenak, hidratazio eta nutrizio tratamenduak dira. Gure ile-apaindegian, botoxa eta plasma dauzkagu aukeran.



ILE-APAINDEGIAK



ESTETIKA ZENTROAK



Profesionalik onenak zure zerbitzura!



Neska eta mutil, batera irten ziren San Migel eguneko erguerdiko saioan; lehenengoz ere, gorporazioa atera zuten plazara.

Yankiek hartuko dituzte kale eta bazterrak biharko Mozorro Egunean

XVII. Nekazaritza eta Artisautza Azoka egingo dute Andaparapen, domekan

IURRETA Aitziber Basauri Bidearen erdia egin dute sanmigelek. Hala ere, oraindik badago zer egin eta zer ikusi Iurretan. Yankiek hartuko dituzte kale eta bazterrak bihar, Jai Batzordearen gonbiteari eutsita. Horrez gain, bizikleta festa, herri bazkaria eta erromeria antolatu dituzte. Baita bertso saioa ere: Sustrai Colina, Unai Iturriaga, Amets Arzallus, Maialen Lujan-

bio, Jon Maia eta Igor Elortza arituko dira.

Domekan, berriz, XVII. Nekazaritza eta Artisautza Azoka egingo dute, Andaparapen. Dantzariak, bakailao txapelketak eta herri afariak osatuko dute sanmigel jaien azken eguna.

Gorporazioa dantzara Montoiko zubitik botatako txapligoekin jai-giroan murgildu

ziren iurretarrak, San Migel bezperan. Donien Atxa jartzeko arratsaldeko hitzorduak, berriz, behin betiko hasiera eman zien sanmigele, aurreko asteburuak ere hainbat ekitaldi batu zituen arren. San Migel egunak ere ekarri zuen nobedaderik: neska eta mutil, batera irten ziren plazara, eguerdiko saioan; baita lehenengoz ere, gorporazioa atera zuten dantzara.

Euskal kultura eta euskararen aldeko lana aitortu diote Benito Ysursari

IURRETA A.B.

Benito Ysursak (1885, Iurreta) euskara, euskal kultura eta balioak mantendu eta transmititzeko egindako lana aitortu gura izan du Iurretako Udalak. 100 urte bete dira Benito Ysursa Iurretatik Boisera (AEB) joan zela, 'La Touraine' itsasontzian. 20 urte zituen orduan. Han, Asunción Camporendorekin ezkondu, eta seme-alaba bi izan zituen. Aho batez onartutako idatzian, Iurreta eta Boise arteko harremanak sustatzea ere jaso dute.

"Euskal Herria biziki maitate zuen, eta ondorengo zein ingurukoei euskal kultura, dantzak eta euskara transmititzen eman zuen bizitzaren zati handi bat", dio idatziak. 1984an hil zen, Idahon, 89 urte gaz, eta, "bere iloba eta bilobak, Idaho-ko euskal komunitateko kide garrantzitsu eta aktiboak dira gaur egun". Herritik irten, eta euskal kulturari eta hizkuntzari eutsi dieten Iurretako biztanle guztiei ere azaldu die esker ona udalak.

SEI HANKAKO MAHAIA

DANI MAEZTU
EH Bildu



Euskara galtzaile

Aldaketak etorri dira Durangoko udalean. Gobernu berria, jarrera berriak. Onerako? Ikus dezagun.

Azken osoko bilkuraren hasieran, adierazpen instituzional bat irakurri zen, gaztelania hutsez irakurri ere. Orain artean, lehenengo, euskaraz irakurtzen ziren, eta zenbait kasutan, euskaraz bakarrik, osoko bilkura aretoan bat-bateko itzulpen zerbitzua dagoelako. Dirudienek, alkateorde berriak protagonismo berezia behar zuen irakurketa horretan, eta euskaraz ez dakienez, gaztelania nagusitu zen bilkuraren hasieran. Zorritzarrez, hori ez da aldaketa bakarra, ezta txarrena ere hizkuntza arloan. Alkateorde berberak, udal gobernuaren onesperakin, beste erabaki bat hartu du legealdi hasiera honetan, aspaldidanik bere garaian udalaren erabakiari jarraituz: jubilatuei AEK-ko euskaltegia euskara ikaste-ko ematen zitzaieen diru-laguntzak kentzea. Zehazki, HABE-ko euskaltegiara ikastera badoaz, diru-laguntzak izango dituzte, baina, AEK-ko euskaltegia jarraituz gero, ez.

Euskara arloan, udalak badu Plan estrategiko bat, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia izen *ponposoa* duena. Aho batez onartutako plana, goitik behera begiratu dut artikulu hau idatzi baino lehen, baina ez dut inon topatu euskararen transmisioa, euskaltegiak euskaltegi, hobeto bermatzen dela HABEn AEKn baino. Tira, ziurrenik, beste hainbat plan bezala, udal gobernuo kideek hau ere kutxa batean eta giltzapean sartuta edukiko dute. Gobernu berria, eta momentuz, euskara galtzaile.

34 lagun batu ziren jubilatuen bazkarian

Azkarraga eta Oarbeaskoa omendu zituzten

GARAI M.O.

San Migel nagusien elkarteak bazkaria antolatu zuen, martitzenean, San Migel egunaren aitziakipean. Antolatzaileek esan dutenez, 34 lagun batu ziren Herriko tabernan burutu zuten otorduan, eta giro onean parte hartu zuten arratsaldera arte. Gainera, duela aste biko Aste Kulturean jokaturako karta txapelketetako sariak banatu zituzten.

Bestalde, elkarteak bazkide nagusienak omentzeko aprobe-

txatzen dute urteroko bazkari hau. Aurten, Lidia Azkarragari eta Javier Oarbeaskoari tokatu zaie omenaldia jasotzea. Hainbat opari jaso zituzten elkarteak kideen eskutik.

Duela aste biko Aste Kulturean jokaturako karta txapelketetako sariak banatu zituzten

Txintxirri omendu dute, ereduari eusteagatik

1993an, zatiketa gertatu zen ikastoletan

ELORRIO M.O.

Joan zen zapatuan, ikasturte hasierako ekitaldia egin zuen Ikastolen Elkarteak Azpeitian, eta, bertan, Elorrioko Txintxirri ikastola omendu zuten, beste hiru ikastolagaz batera. 1993an, Eskola Publikoaren Legearen ondorioz, zatiketa gertatu zen ikastoletan, eta batzuek, egoera zailean geratu arren, ereduari eustea erabaki zuten.

Txintxirri izan zen ikastola horietako bat, eta arduradunek esan dute "erabaki zaila eta

sendoa" izan zela: "Momentu gogorrak izan ziren, baina bidea urratsez urrats eraikitzen jarraitu zuen taldeak".

Gainera, harro daudela diote, "ikastolak eskaintzen duen hezkuntza, eredu propio eta nazionalen oinarrituta dagoelako, eta etengabeko hobekuntzaren bidean kalitatezko hezkuntza eskaintzen dugulako". Ikastolak herritik herriarentzat sortuak direla ere gogoratu dute, eta auto-eraketan oinarritzen den ereduak dutela ere bai.

MACOBER

Eraikuntzarako materiala

MACOBER

Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

DIBA

Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

Ibai Buruagak lortu du bila zebilen txapela

Arrazolan jokaturako pala txapelketa irabazi du



Ibai Buruaga txapeladuna eta Asier Herreros, finalaren egunean.

ATXONDO J.Derteano Arrazolako pala txapelketa Ibai Buruagak irabazi du. Orain hiru urte, txapelketako lehen aldian, finala galdu zuen, eta, iaz, finalerdietara heldu zen arrazolarra. Aurten, faboritoen artean zegoen beste behin, eta, azkenean, lortu du bila zebilen txapela. Finalean 25-14 menderatu zuen Asier Herreros atxondarra.

Arrazolako pilotaleku txikia lepo bete zen finalak ikusteko. Herrerosek orkatila bihurritu zuen partidua hasieran, eta handik aurrera, berea eman ezinda aritu zen. Buruaga, aldiz, hasierako urduritasunak baretu zituen, gehiago izan

zen. Bigarren mailako txapela Iraitz Arkarazok jantzi zuen; Egoitz Axperi irabazi zion finala. Hirugarren mailakoa Gorka Gorostizarentzat izan zen.

Aurten 38 lagunek parte hartu dute txapelketan eta guztira 200 partidutik gora jokatu dituzte

Aurten, 38 lagunek parte hartu dute txapelketan, eta 200 partidutik gora jokatu dituzte. Urterik urtera, gero eta arrakasta handiagoa izaten arin den txapelketa da.

Jendaurrean berba egiten trebatuko dira emakumeak

Jabekuntza ikastaroa sei astelehenetan emango dute

ZORNOTZA A.U. Lotsa eta urduritasuna gainditu, eta jendaurrean lasai berba egiteko teknikak erakutsiko dituzte, urriaren 19tik aurrera, Zornotzako emakumeei zuzendutako ikastaroan. Jabekuntza ikastaroa Nagusi Aretoan eskainiko dute, eta urriaren 9ra arte dago izena emateko aukera.

Ikastaroa astelehenetan eskainiko dute, urriaren 19an hasi, eta azaroaren 23ra arte. Berdintasun sailetik adierazi dutenez, "helburua gaur egune-

ra arte emakumeak baloratuak ez dauden arloetan beraien gaitasunak garatzea da".

Jabekuntza ikastaroa Nagusi Aretoan eskainiko dute, eta urriaren 9ra arte eman daiteke izena

Izena emateko, Nafarroa zentrora jo daiteke, goizez, edo, bestela, udaleko webgunearen bidez ere egin dezakete.

Burgosko mendiak bisitatuko dituzte adineko ibilaldi zaleek

San Fausto auzoko jaietara oinez joango dira domekan

BERRIZ A.U. Mendi irteera antolatu du Berrizko Udalak, urriaren 16tik 19rako astebururako. Burgos aldeko Cañón del Ebro eta Desfiladero de los Tornos inguruak bisitatuko dituzte, eta bidaiara joan gura duenak urriaren 9a baino lehen eman beharko du izena, kiroldegian.

Azken urteotan, Santiago bideko etapak egiten ibili da 50 urtetik gorako berriztarren talde bat, eta bidaiara horietan sortutako giro ona ikusita, aurten, Burgosko parajeak bisitatzeko

bidaiara antolatu du udaleko kirol sailak.

Domekan, San Faustora Bestalde, San Fausto auzoko jaiak direla aprobetxatuta, belaunaldien arteko ibilaldia egongo da, domekan, auzo horretara. Ordubeteko ibilaldia izango da, 7 kilometrokoa, eta 10:30ean irtengo dira BBK aurretik. Zahartze aktiboa eta belaunaldien arteko harremanak sustatzeko ibilaldia da. Kiroldegian, udaletxean edo jubilatuen egoitzan eman daiteke izena.

Neguko Azokan parte hartu gura dutenen izen-ematea

Azaroaren 22an egingo dute Zaldibarko Neguko Azoka

ZALDIBAR I.E. Azaroaren 22an Euskal Herria etorbidea baserriko produktuz beteko duen Neguko Azokan parte hartu gura duten nekazariak izena emateko aukera dute, urriaren 23ra arte. Udaletxean, edo 946 827 016 telefonon eman dezakete izena.

Durangaldeko, Lea-Artibaiako eta Busturialdeko nekazariak izena emateko aukera dute, urriaren 23ra arte. Udaletxean, edo 946 827 016 telefonon eman dezakete izena.

Ohi bezala, barazki eta fruta, txakolin, ogi, gazta, zein ezti loterik onenak saritzeko hainbat

lehiaketa burutuko dituzte, azoka egunean. Gainera, ondoen dekoratutako azokako erakusmahaiari 125 euroko saria ere emango diote.

Udalak proposatuta, zaldibartar talde batek osatuko du lehiaketako epaimahaia.

Udaletxera bertaratu, edo 946 827 016 telefonora deituta eman daiteke izena

> DURANGALDEA ASTEON

Baserri Eguna, 9an, Matienan

ABADIÑO > IV. Baserri Eguna egingo dute, urriaren 9an, Traña-Matienan. Bertako produktuen azoka eta hainbat tailer izango dira, 17:00etan hasita; gozokiak, belaki naturalak, edo taloak egiten ikasteko aukera egongo da. Bestalde, txapel jaurtiketa lehiaketa ere egingo dute, laugarren urtez.

Donostiara joateko EH Bilduren deia

DURANGALDEA > 'Bakea, erabakia' lemagaz, bihar, Donostian egingo den manifestaziora joateko deia zabaldu du EH Bilduk. "Konponbiderik nahi ez dutenen aurreran, hitza eta erabakia" aldarrikatzen deitu ditu herritarrak, "bakearen bidean, elkarbizitzan eta bakegintzan", eredu izaten jarraitzeko.

Mendebaldeko Sahara, Iturri

ELORRIO > Mendebaldeko Saharari buruzko erakusketa zabaldu dute asteon, Iturri kultur etxean, eta urriaren 15era arte egongo da bertan ikusgai. Lajwad Elkarteak, Institutuak eta Ikastolak antolatu dute erakusketa, eta besteak beste, Amgala ekimena ezagutzera ematen dute, bertan.

Iritzia



astekaria@anboto.org
astearte 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodunentzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9,
48215 - Iurreta
• izen-abizenak • telefonoa
• helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUOK-

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (artekak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta emandako iritzien erantzukizunik.

Lagunartean kantukantari, martitzenero

Musika klaseek eskaintza berria dute aurten

IZURTZA J.D. Datorren astean, musika klaseen aurtengo ikasturtea hasiko dute liburutegian, eta Izurtzako kantuzaleek zaletasun hori praktikan jartzeko aukera izango dute eskaintza berri bati esker. Martitzenero, 18:30etik 19:30era, askotariko musika estiloetako abestiak elkarrekin abesteko elkartuko dira.

Mila Rodriguez irakaslearen pianoak jarriko die doinua abestiei. Momentuz, zazpi emakume eman dute izena, baina gizon zein emakume, denei

irekita dago. Ez dago solfeorik edo aparteko ikasketarik izan beharrik, ondo pasatzeko gogoia baino ez da behar Rodriguezen esanetan: "Euskal kantu tradizional bat izan daiteke, zein modernoago bat. Eurek proposatu, eta guk doinua jarriko diegu".

Aspaldiko partez, gaztetxoek musika klase bat osatzea ere lortu dute aurten. Eguaztenero, 18:30etik 19:30era, lau bat gazte klaseak jasotzen hasiko dira.

Udalean egin daiteke izen-ematea. Izurtzan erroldatuta daudenentzat doakoa da.

➤ Berbaz

Estela Pradas (Bartzelona, 1983) eta Josep Sancho (Mont-roig del Camp, 1985) | Aldarricatuz-eko kideak

“Aldaketa ezkertiar eta independentista posible izan daiteke”

Herrialde Katalanetan eta Euskal Herrian lan egiten duen kolektiboa da Aldarricatuz

➤ **BERBAZ** Aitziber Basauri Herrialde Katalanetan gertatzen denaren bozgorailu izan guran jaio da Aldarricatuz, Euskal Herrian bizi diren katalanek bultzatuta. Kolektibo ezker independentista horretako kide dira Josep Sancho —bost urte daroaz Bilbon, eta Otxandion lan egiten du— eta Estela Pradas—urtebete da Durangon bizi dela—. Katalunian bizi denaz jardun du ANBOTOK eurekin.

Herrialde Katalanen errealitatea Euskal Herrira ekartzeko sortu da Aldarricatuz.

Josep Sancho: Hala da. Euskal Herrian asko hitz egiten da gure herrialdeaz. Gaur egun bizi dugun abagune politikoak ere lagundu du horretan. Hala ere, han gertatzen denaren informazio osoa ez dagoela uste dugu.

Estela Pradas: Katalunia historikoaren lurralde eremua —Katalunia, Valentziako Herria, Balearrak, Ipar Katalunia eta La Franja de Ponent— defendatzen dugu, ez Espainiak eta Frantziak inposatutako autonomia erkidegoena. Hango nazio zein genero eta gizarte (Bartzelonako Sans auzoko Can Vies gizarte-zentroko borroka, Vaga de totes emakumeen greba...) borroken ahotsaren bozgorailu izan gura dugu.

Nola bizi duzue Katalunian bizitako egoera politikoa?

E.P.: Pozik gaude CUPEk emaitzak hirukoiztu egin dituelako. Horrek ezker independentista antikapitalistak indarra hartu, eta espazioa irabazi duela sinistarazten digu. Gainera, gehiengo absolutua dute Kataluniako parlamentuan independentistek. Egoera horrek independentziaren borrokagaz jarraitzeko aukerak zabaltzen ditu. Hala ere, hauteskunde autonomikoak izan dira, Herrialde Katalanen zati handi bat kanpoan geratuz. Baliteke gaur ezer ez aldatzea: pribatizazioekin eta murrizketekin jarraituko du Convergenciak, baina, CUPEk ordezkariak gehitu du, eta alda-

keta ezkertiar eta independentista posible izan daiteke. Urte askoan, gizarte mugimenduetan lan egin eta borrokatu direnak (casal, ateneo, lantoki, institutu, unibertsitateetan...) daude hor.

Parte hartzea historikoa izan da, %77tik gorakoa.

J.S.: Oso positiboa da, gero eta herritar gehiagok politikaren bilakaeran parte hartu gura duela erakusten duelako. Politika eguneroko kontua da, baina, hauteskundeen aurrean, eta hauek hartutako izaera ikusita, parte hartzea garrantzitsua da.

Izaera plebisitariaria?

J.S.: Ezkertiar independentista guztiok ikusi dugu etorkizunerako, independentziarako, hauteskunde klabeak zirela, hasieratik esan arren Espainiako erkidego autonomo bateko hauteskundeak zirela. Espainiak arrazoia eman digu Barak Obama, Angela Merkel... galdetuta. Independentiak gara Espainiarekiko, Troikari ordaintzeko zorrarekiko, edota NATOrekiko. Parte-hartzea horrenbestekoa izana oso garrantzitsua da guretzat guzti horretarako.

Prozesu independentistari legitimitatea emateko, botoen %55 eskatu du Europak.

J.S.: EBk ez digu batere onurarik ekarri. Kalte handia eragin die Herrialde Katalaneko lan-

“**Herrialde Katalanetan hainbat prozesuz osatutako prozesua abiatu da**”

“**Kataluniako Errepublikaren jaiotze agiria sinatu zen domekan**”



gileei: Maastrichteko itunagaz nekazaritza tradizionala galdu genuen—beharrezkoa paisaia sozialari eta ingurumenari eusteko—; euroak gainerako ia estatu guztiei emandako zartada eman digu; eta, langileen zirkulazio librea ez da horren librea. Kapitalaren Europa da hau, eta Europako langile guztien batasunean sinisten dugu, munduko langileen batasunean lez.

E.P.: Desberdintasunen EB da hau, errefuxiatuen krisia gestio-natzen ez dakiena; elkarretar-tze faxista eta neonazi gero eta gehiago dituena. Europatik zein kanpotik datozenentzat insolidarioa eta bidegabea. Europa hori ordezkatzeko Ciudadansek, eta 25 ordezkari lortu ditu. **Junts Pel Sík Artur Mas aurkeztu du President moduan.**

E.P.: Independentziak herri baten izena du, ez pertsona batena.

Hala esan du CUPEk ere.

J.S.: Kataluniako Errepublikaren jaiotze agiria sinatu zen domekan; Otxandion edo Reusen jaurtitako bonbetan, Andaluziako hilketetan... oinarritutako estatuaren heriotza agiria. Antonio Baños (CUP) esan duen legez, eraikitzen hasteko ezinbestekoa da langile katalan guztiak hiru otordu izatea. Frankismoaren mutazioa baino ez den 78ko erregimena apurtzen ari gara.

Prozesu soberanista aurrera doa. Zer aldatu da domekatik?

J.S.: Herrialde Katalanetan hainbat prozesuz osaturiko prozesua abiatu da. Oso garrantzitsua da Kataluniakoa, Europa eta mundua begira baitaude. Baliteke Katalunian egoera la-gungarriagoa izatea, baina, Valentzia Herriaren, Balearren...

egoerak desberdinak dira. Asko dago egiteko.

Zein bide orri jarraituko zaio?

J.S.: Desobedientziaren aldekoak gara. Legaltasunean baino, legitimitatean sinisten dugu. Langilegoari begirako politikak landuz gero, berbetan eta herria eraikitzen hasi gaitezke. Ezkerreko independentismoa beti egon da, eta herri gisa hitz egin du.

E.P.: Burgesia katalanak osatzen du Junts Pel Sí; erregionalistak izan dira beti, murrizketak egin dituzte (hezkuntza, osasunean...). Estatutu oso murriztua negoziatu zuen Artur Masek. Normala da ez fidatzea. Gainera, bankuekin hipotekatuta daude. Ez zaie multinazionaleri jokoa egin behar. Pribatizazioari eta murrizketari amaiera eman behar zaie.

Sanboto

JAIAK!

DURANGO

2015eko URRIA



**DENDA
BERRIA
ZABALIK**

Andra Mari, 8 behea
DURANGO - Bizkaia
Tel.: 946 570 166

L↓ U← R↑



L↓ U← R↑

Ondo pasa jaietan!

Jose Antonio Agirre, 2
DURANGO - Bizkaia
Tel.: 946 817 974

DURANGOKO

URRIAK 2, BARIKUA

19:00 Durango Nissan-Gaursa errugbi taldearen ekipoen aurkezpena Goienkalen.

URRIAK 3, ZAPATUA

16:00 – 20:00 Igeriketa txapelketa herrikoia Landako kiroldegian. Izen-ematea: 3€ www.kirolprobak.com / 5€ egun berean. Oparia parte-hartzaile guzientzat. 9 urtetik aurrera. Informazio gehiago: www.tabirait.com eta info@tabirait.com.

16:00 Angelman sindromearen elkartasun eguna, Landako Gunean.

16:00 – 18:00 Zumba maratokia.

18:00 – 20:00 Haurrentzako tailerrak eta scalextric.

20:00 – 22:00 Erromeria ZIRKINIK BEZ taldearekin.

Sarrera: 3€-ko eskumuturrekoa (salgai Loiro decoración, Metro kopistegian eta Bizibiken).

18:00 -19:30 "Atletismoa kalean", atletismo erakustaldia, Ezkurdin: hesiak, jaurtiketak eta atletak vs. patinatzaileen abiadura eronka.

18:00 Estatuko ohorezko B mailako errugbi partida, Arripausetan: Durango Nissan-Gaursa rt – Bera Bera rt.

18:00 XXXII. San Fausto zesta-punta txapelketa, Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan.

19:30 Euskal ligako nesken errugbi partida, Arripausetan: Durango Nissan-Gaursa rt – Getxo rt.

URRIAK 4, DOMEKA

08:00 XLVII. Durangaldeko gailurrak.

10:00 Durangoko X. duatloi herrikoia, Santa Anatik. www.mugarratt.com

12:00 San Fausto XXXII. zesta-punta txapelketa, Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan.

URRIAK 5, ASTELEHENA

Mus, tute, briska, igel, billar eta ping-pong txapelketen hasiera nagusientzat.

Izen-ematea doan izango da, urriaren 2ra arte, adinekoentzako udal egoitzako kafetegian. Plazak zozketa bidez emango dira. Laguntzailea: Cafés Baqué.

URRIAK 8, EGUENA

17:00 Familiak euskaraz jolasten, Ezkurdin.

URRIAK 9, BARIKUA

19:00 "Durango en la Historia. Siglos XIII - XVI", Belen Bengoetxearen hitzaldia Arte eta Historia Museoa.

19:00 Kalejira koloretsua Bizkargi 1937 zantzarrekin, txosnagunean hasita.

19:30 Cafés Baqué XXIX. eskupilota txapelketaren finala, Ezkurdi Jai Alai frontoian.

20:00 Txupinazoa txosnagunean. Txupineroa: Intxaurre Kultur Elkartea.

22:00 "Zapoi", Karrika antzerki taldearen lanaren estreinaldia, Ezkurdin.

22:30 Kontzertua txosnagunean: Nevadah, Sumisión City Blues eta Las Tea party.

URRIAK 10, ZAPATUA TXUPINAZOA ETA JAIEN HASIERA

III. Argazki lehiaketaren hasiera. Argazkiak aurkezteko epea, urriaren 19an, 00:00ak arte, f.stop.durango@gmail.com emailera bidaliz. www.f-stopdurango.org

08:00 Perretxikoen bilketa. Irteera Ezkurditik.

10:00 Esku pilota jaialdia San Fausto pilotalekuan. Mailak: umetxo, ume, gazte eta seniorrak.

11:00 Omenaldia Natxo Martínez-i, Balbino Garitaonaindia plazan.

12:00 Erraldoiak eta buruhandiak Alde Zaharretik, Ezkurdin hasita.

12:00 Patxikotxuri ongi etorria, San Fausto auzoan. Ondoren, koadrilen jaitsiera udaletxeko plazaraino, Sugarri Fanfarriarekin.

Koadrilen izen-ematea eta informazioa, Pinondo etxean urriaren 8ra arte.

12:00 Sorkuntza gunea txosnetan: umeentzako eraikuntza tailerra eta adin guzietarako oihal margoketa tailerra. Margotzeko kamiseta, oihala edo janzkia ekarri behar da.

13:00 Txupinazoa Herria auzo elkartearrekin. Gora San Faustoak!

13:00 Karropoteoa, txosnetan hasita.

15:00 Bazkaria, txosnagunean.

17:00 Olinpiadak, txosnagunean.

17:30 Entziero txikia Santa Anan. (Euria bada, San Antonio-Sta. Rita ikastetxean).

18:00 XXXII. San Fausto zesta-punta txapelketa, Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan. (Final aurrekoak)

18:30 El Espejo Negro konpainiaren "La cabra" ikuskizun ibiltaria, udaletxe plazatik. (Euria bada, Ezkurdin).

19:00 Elektromatxino elektrotzaranga txosnagunetik.

20:00 "Go bllack", Bart... Sax!, Sax Big Band eta Beat Salad taldeen kontzertua Andra Marian.

21:00 "Rockalean", Zo-Zongóren kontzertu ibiltaria Alde Zaharretik.

22:30 Kontzertua Ezkurdin: Hesian eta Itziarren Semeak.

23:00 Kontzertua txosnagunean: Perlak, Yoko Out, Kenitra eta Selektah Step (Bad Sound System) + lagunak.

URRIAK 11, DOMEKA UMEEN EGUNA

07:00 Diana txistulariekin.

07:30 Zezenak Dira dultzaineroekin.

09:00 San Fausto XXVI. calva txapelketa Murueta Torren.

10:00-13:00 San Fausto XLII. marrazki lehiaketa San Fausto auzoan.

Izen-ematea 10:00etatik 12:00etara.

11:00 – 14:00 Haur parkea tren geltokiaren plazan. (Euria bada, San Antonio - Sta. Rita ikastetxean).

11:00 – 13:00 Xake txapelketa umeentzat Andra Marian. Aldibereko partidak eta itsuan.

11:00 – 13:00 Haurrentzako tailerrak Ezkurdin.

11:00 – 13:00 Zumba family Santa Anan.

11:00 XVI. Mikologia erakusketaren edizioa, XV. Argazki mikologikoen lehiaketa eta XV. Perretxikoak sailkatzeko 16 urtetik beherakoentzako lehiaketa merkatu plazan.

11:30 Kalejira txistulariekin.

11:30 Txokolatada, Ezkurdin.

11:45 Tabira Musika Bandak eta Musika Eskolako Bandak emanaldia eskainiko dute J.M. Barandiaran egoitzan.

12:00 Patxikotxuren kalejira txupinero txiki eta koadrilekin Ezkurditik udaletxeraino.

12:00 Emakumezkoen saskibalo partidua, Landako Kiroldegian: Tabirako Baqué-Leioa Sbt.

12:30 Txupinazo txikia Uztai Taldea gimnasia erritmiko klubarekin, udaletxe plazan. Ondoren, koadrilen sari zozketa.

12:30 Oilasko pintxo dastaketa eta Durangaldeko trikitilarien erakustaldia, txosnagunean.

13:00 Kontzertua Tabira Musika Banda eta Musika Eskolako Bandarekin Andra Marian.

14:00 Bazkaria pertsona nagusientzat, Landako Kiroldegian, orkestrak girotua.

16:30 – 19:30 Haur parkea tren geltokiaren plazan. (Euria bada, San Antonio-Sta. Rita ikastetxean).

17:00 Arte martzialen erakusketa eta kalejira, Alde Zaharretik.

17:30 Ipuin kontalariak ingelesez 3-8 urte bitarteko umeentzat, Ezkurdin.

17:30 Euskal Herriko Errekortariak (errekorteak, jauziak, izkin egitea...) zezen plazan. Sarrera: 3€ (koadrilak eta umeak), 5€ (helduak).

18:00 "Jolastera", Teatro Trapero Del Ríoren haurrentzako berbena, Andra Marian.

18:00 Profesional mailako zesta-punta txapelketa, Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan. (Final aurrekoak).

19:30 Elektrotzaranga Goienkalen.

19:30 Gorantz Eroriren kontzertu akustikoa, txosnetan.

20:00 "En un lugar del Quijote", Ron Lalá Eta Cía. Nacional De Teatro Clásico konpainien antzerki lana San Agustín Kultur Gunean. Sarrera: 14€ (bazkideak 10,50€).

21:00 Zezensuzkoa, Santa Ana plazan.

21:00 – 00:00 Indarkeria sexistarik gabeko txokoa, txosnagunean: Informatu eta jardun.

22:00 Kalejira Ardoa Barrura fanfarriarekin, San Fausto auzoan.

22:30 Orkestra, Ezkurdin: Nuevo Talismán.

22:30 Kontzertua, txosnetan: Ganorabakuek, Dr. Maha'S Miracle Tonic, Los Zopilotes Txirriaos eta DJ Txaparron.

URRIAK 12, ASTELEHENA

7:00 Diana txistulariekin.

7:30 Zezenak Dira dultzaineroekin.

10:00-17:00 Promoziozko zaldi salto lehiaketa, Zuhatzola parkean. (Euria bada, lurretako Zelai Alai hipikan).

10:00 XXIV. Marmitako txapelketa Ezkurdin. Izen-ematea eta informazioa, Pinondo Etxean, irailaren 30era arte.

10:00 "Durango Uria" III. futbol 7-ko infantil mailako txapelketa, Jesuitak ikastetxean

11:00 – 14:00 Pai teatrotan "Jai pirata", jolasak familia osoarentzat, Santa Anan. (Euria bada, San Antonio-Sta. Rita ikastetxean).

11:00 Umeen parkea, txosnagunean: puzgarriak, tailerrak, jolasak...

11:30 Kalejira txistulariekin.

12:00 – 18:00 Graffiti erakusketa, Azoka kalean.

12:00 – 14:00 Hip hop saioa Itsua DJ-arekin, Azoka kalean.

12:30 Senegaleko erritmoak M'Lomp elkartearen kalejirarekin, Ezkurditik hasita.

16:00 – 19:00 Pai teatro taldearen "Jai pirata", jolasak familia osoarentzat, Santa Anan. (Euria bada, San Antonio-Sta. Rita ikastetxean).

16:30 – 18:30 DJ Itsuaren hip hop saioa, DJ Jackieren scratch teknikaren masterclass eta erakustaldia eta Mockey'S Salad, Omzo Mf eta Gunflow rap abeslarien errimen erakustaldia, Azoka kalean.

17:00 Kantu jira Ezkurditik.

17:00 Ipuin kontalariak, txosnagunean.

17:30 16 urtetik beherako errekortari gaztetxo txapelketa, zezen plazan 2015eko Baionako txapelketako finalistekin. Ondoren, bigantxak. Sarrera: 3€ (koadrilak eta umeak), 5€ (helduak).

18:00 Karibear dantza ikastaroa, txosnagunean.

19:00 Erromeria Luhartz taldearekin, Ezkurdin.

20:00 La Jodedera-ren kontzertua, txosnagunean.



AMALUR ASEGURUAK, S.L.

amalur.aseguruak@agencia.axa.es
www.amalur.agenciaaxa.es

AXA DURANGO KURUTZIAGA
Kurutzaga, 26 Durango
946 816 022

AXA ELORRIO
Berrio-Otxoa, 4 Elorrio
946 584 703

NACEX

San Roke, 10-12 DURANGO
Tel.: 946 200 162 Mob.: 666 444 101
4810.operativa@nacex.es

www.nacex.es
informazio orokorra: 900 100 000

JAIEN EGITARUA

22:00 Luhartz taldea, Ezkurdin.

22:00 Disko dantza, San Fausto auzoan.

URRIAK 13, MARTITZENA SAN FAUSTO EGUNA

07:00 Diana txistulariekin.

07:30 Zezenak Dira dultzaineroekin.

11:00 – 14:00 Txu-Txu tren eta txiki park-a, Ezkurdin.

11:00 – 14:00 Jumping, eskalada-murrua, tirolina, ohe elastikoak eta jolasak, musika eskolan. (Euria bada, San Antonio-Sta. Rita ikastetxean).

11:00 Meza nagusia, San Fausto elizan.

11:30 Kalejira txistulariekin.

11:30 Umeentzako herri kirolak, Ezkurdin.

12:00 Paella txapelketa San Fausto auzoan. Parte-hartzaileei arroz emango zaie lizen-ematea: 12:00etatik.

12:00 Paella txapelketa, txosnagunean.

14:30 Sari banaketa.

12:30 Txalaparta, ohorezko aureskua eta artopilen banaketa, udaletxe plazan. Ondoren, Durangoko Dantzariak.

16:00 Poniak San Fausto auzoan. (Zezen plazan. Sarrera doan).

16:00 – 19:00 Jumping, eskalada-murrua, tirolina, ohe elastikoak eta jolasak, musika eskolan. (Euria bada, San Antonio-Sta. Rita ikastetxean).

16:00 – 19:00 Txu-txu tren, Ezkurdin.

17:00 Mañaria errearen jaitsiera, Tabiratik hasita.

17:30 Txokolata eta haurrentzako jolasak, San Fausto auzoan.

17:30 Koadrilen arteko grand prix: bigantxekin eta bigantxik gabeko jokoak zezen plazan. Sariak irabazleentzat. Lizen-ematea Pinondo Etxean. Sarrera: 3€ (kuadrilak eta umeak), 5€ (helduak).

18:00 "Walkman", Ganso&Cía taldearen antzerki lana, Santa Anan. (Euria bada, Ezkurdin).

18:00 Profesional mailako zesta-punta txapelketa, Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan (Finalak).

19:00 Bertsolariak txosnagunean: Unai Iturriaga, Igor Elortza, Miren Amuriza eta Txaber Altube. Gai-jartzailea: Maite Berriozabal.

19:30 "Mundo intrépido", The Golden Apple Quartet taldearen ikuskizun berria, Andra Marian.

URRIAK 15, EGUENA

17:00 Familian euskaraz jolasten, Ezkurdin.

19:00 "El mesón de los suspiros", Gora Ta Gora taldearen antzerki lana, San Agustin Kultur Gunean. Gonbidapen zenbakituak museoko leihatilan, urriaren 6tik aurrera.

URRIAK 16, BARIKUA

09:00 "Ezagutu Durango eta bere ingurua", nagusientzako mendi ibilaldia udaletxe plazatik. Ibilbidea: San Rokeburu, Bitaño, Dolometa, Sta. Ageda, Ortuzar, Etxano, Artabilla, Durangoko udala. (12km).

17:00 Gurutze Gorriaren ate irekien jardunaldiak, Ezkurdin. Simulazioa, 19:00etan.

18:00 Tortilla txapelketa, txosnagunean.

20:00 Sari banaketa.

19:00 Jam session, txosnagunean.

19:00 Nesken gomazko paletako MPB zirkuitua, Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan.

19:30 Ekialdeko dantzen erakustaldia Khuzayma elkartearekin, Andra Marian.

21:00 – 00:00 Indarkeria sexistarik gabeko txokoa txosnagunean: "Informatu eta jardun".

21:30 Las Felliniren transtornismo ikuskizuna, Andra Marian.

22:00 Kontzertua, Ezkurdin: The Mockers eta Los Ultraligeros.

22:00 Kontzertua, txosnetan: Zebel, Paniks, The Riff Truckers, Itsua eta DJ Jackie (Beat Salad Records).

22:30 Bertsolariak, San Agustin Kultur Gunean: Jon Maia, Sustrai Colina, Unai Iturriaga, Amaia Agirre, Unai Agirre eta Oihana Bartra. Gai-jartzailea: Igor Elortza. Gonbidapen zenbakituak museoko leihatilan, urriaren 6tik aurrera.

URRIAK 17, ZAPATUA MOZORRO EGUNA

07:00 Diana txistulariekin.

07:30 Zezenak Dira dultzaineroekin.

10:30 Xake txapelketa federatu gabekoentzat, Ezkurdin. Lizen-ematea txapelketa hasi baino ordu erdi lehenago.

11:00 Nekazaritza azoka, Ezkurdin.

11:00 Umeentzako mozorro tailerra, Andra Marian.

11:00 Astronomia tailerra eta lehiaketa, udaletxe plazan.

11:30 Kalejira txistulariekin.

12:00 VIII. Patata tortilla txapelketa Ezkurdin. Laguntzailea: Dendak Bai eta babobapo.com (lehera eramateko janaria on line). Mailak: 15 urtetik behera / 16 urtetik gorakoak. Lizen-ematea eta informazioa: Pinondo Etxean, urriaren 1etik 14ra. Plaza mugatuak.

12:00 Kalejira Durangoko Orfeoiaekin Alde Zaharretik.

12:00 Umeentzako sukaldaritza tailerra, txosnagunean.

13:00 Haurren mozorro-desfilea eta sari banaketa, Andra Marian.

14:30 Elkartasun bazkaria, txosnetan.

17:00 Animazioa trikixarekin pertsona nagusien egoitzetatik.

17:30 Behi-futbola. Koadrilen arteko futbol partiduak. Lizen-ematea Pinondo Etxean. Ondoren, bigantxak. Sarrera: 3€ (koadrila eta umeak), 5€ (helduak).

18:00 XXXII San Fausto zesta-punta txapelketa, Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan. (Finala)

18:00 Eonian elektrotxaranga, txosnetan hasita.

18:30 Taldekako mozorro-desfilea, Madalenatik Andra Mariraino. Bukieran, sari zozketa. Lizen-ematea: urriaren 1etik 15era, Pinondo Etxean. Laguntzailea: Dendak Bai. (Euria bada, Andra Marian).

18:30 Kalejira Dunbots fanfarriarekin, Madalenatik Alde Zaharretik.

19:00 Gizonezkoen saskibalo partidua Landako Kirolegian: Tabirako Baqué - Getxo Sb.

20:00 DJ Jon urbieta, Andra Marian.

20:00 "Koheteak eta txokolata", astronomia tailerra eta txokolata, Zuhatzola parkean. Ondoren, behaketa astronomikoa. (Euria bada, ez da egingo).

21:00 Zezensuzkoa, Santa Ana plazan.

21:30 Animazioa Alde Zaharretik Ghanako Txarangarekin.

22:30 Nueva Alaska orkestra, Ezkurdin.

23:00 Luhartz eta DJ Elepunto, txosnetan.

00:00 – 03:00 Alkoholemia kontrolaren stand informatiboa, Txosnagunean.

URRIAK 18, DOMEKA INGURUMENAREN EGUNA ZAINDU MAITE DUZUN HORI

07:00 Diana txistulariekin.

07:30 Zezenak Dira dultzaineroekin.

10:00 – 14:00 Haur parkea, tren geltokiaren plazan. (Euria bada, San Antonio-Sta. Rita ikastetxean).

11:00 – 14:00 "Enginys eko-poetiks", Katakarak-en eko-jolasak, Ezkurdin.

11:00 – 14:00 Ecoxoc futbola Ezkurdin.

11:30 Kalejira txistulariekin.

11:30 Bizikletaren Jaia:
- Ibilbidea bidegorritik familia osoarentzat (5-9 urte bitarteko neska-mutilekin).
- Mountain Bike ibilbidea (10-14 urte bitarteko neska-mutientzat). Irteera, Andra Marian.

Bizikleta eta kaskoa eraman behar da. Parte-hartzaileen artean sariak zozkatuko dira. (Euria bada, ez da egingo).

12:00 Poniak eta zaldiak musika eskolan. (Euria bada, ez da egingo).

12:00 – 14:00 Arku tirorako gunea, musika eskolan.

12:00 III. Padel txapelketaren finalak, Landako Kirolegian.

12:30 "Durango Uria" XV. margo lehiaketaren sari banaketa, Ezkurdi udal erakusketara aretoan.

12:30 Herri kirolak, Ezkurdin.

12:30 Poteoa Bilbotarrak taldearekin, Alde Zaharretik.

13:30 Bilbainadak Bilbotarrak taldearekin, Andra Marian.

16:00 – 19:30 Kondaira Ludoteka: mahai jokoak, magic txapelketa eta Warhammer erakusketak, Ezkurdin. Lizen-ematea: 16:00etatik 16:30era.

16:00 – 19:00 "Enginys eko-poetiks", Katakarak-en eko-jolasak Ezkurdin.

16:00 – 18:30 "Danak dantzara" L'Atelierekin. Break dance, funky, hip-hop eta party dance tailer parte-hartzaileak, Ezkurdin.

18:00 Mariatxiak, Andra Marian: Gladys Mercado y Su Mariachi Imperial.

18:00 Kontzertu akustikoa, txosnagunean: Keshala eta Anari Banda.

18:30 Kalejira Urolatarrak fanfarriarekin, Alde Zaharretik.

19:30 Kalejira koadrilekin Patxikotxuri agur esateko, udaletxe plazatik tren kotxe-toki zaharretan.

20:00 Jaien bukaera tren kotxe-toki zaharretan.

URRIAK 24, ZAPATUA

17:30 Estatuko ohorezko B mailako errugbi partida, Arripausetan: Durango Nissan-Gauras Rt – Valladolid R.A.C.B.

19:30 Gau Krosa (Night Urban Race).

19:30 15 urte artekoak.

20:00 16 urtetik gorakoak.

www.durangaldearunning.com.

20:00 XXI. Txistu kontzertua, Landako Gunean. Antolatzailea: Silboberri Txistu Elkarte.

URRIAK 25, DOMEKA

XLIX. urteen euskal jai antolatzaileak: Tronperri Dantza Taldea eta Txoritxu Alai Dantza Taldea.

12:00 Talde guztiak merkatu plazan elkartuko dira, eta ondoren kalejira egingo dute.

12:00 Emakumezkoen saskibalo partidua Landako Kirolegian: TABIRAKO BAQUÉ-LEIOA SBT.

13:00 III. Argazki txapelketaren sari banaketa, San Agustin Kultur Guneko sarreran.

17:00 Alardea dantza taldeekin, Ezkurdin. (Euria bada, Landako Gunean).

19:00 "Kreditua", TANTTAKAren antzerki lana, San Agustin Kultur Gunean. Sarrera: 10€ (7,50€ bazkideak).



ALKI
4 barne dekorazioa ERABERRITZE INTEGRALAK
Mikeldi, 6 48200 Durango • 946 813 895
alkiinteriores@hotmail.com
Altzariak, sofak, papera, tapizeria, errezelak. Alfonbrak eta apaingarriak.



90 GRADU
LAN BERTIKALAK
TRABAJOS VERTICALES
**FATXADA ETA PATIOEN
KONPONKETAK ETA MARGO LANAK**
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe
Tel.: 616 413 660
info@90gradu.com
Bernagoitia auzoa, 14 - ZORNOTZA
ALDAMIORIK GABE



Udaletxe aurreko plaza txupinazoaren unean, iaz.



Txosna batzordeak egindako aurkezpeneko argazkia.

Espazio aldaketekin jarriko dituzte abian aurtengo San Fausto jaiak

Txosnagune finko bat adosteko prozesua martxan jarriko dutela aurreratu du txosna batzordeak

> JAIK J.G./ M.O.

Egun gutxi falta dira San Fausto jaiak abian jartzeko. Txosnagune txupinazoa urriaren 9an, barikuan, botako du Intxaurre elkarteak. Udaletxeko txupinazoa, ostera, Herria auzo elkarteak jaurtiko du, egun bat geroago, zapatuan.

Durangoko aurtengo jaien nobedade handienetako bat espazioen berrantolaketa da. Txosnagunea Landako Gunean kokatuko da. Hamalau eragilez osatutako Txosna batzordeak azaldu duenez, "azken orduan, gune honetara egokitzeko an-

tolaketak esfortzu eta ahalegin handia suposatu digu. Hala ere, oztopoak-oztopo, egitarau zabal eta txukuna antolatzen saiatu gara". Kontzertuak, erromeriak, paella jana, erreka jaitsiera eta beste hainbat ekintza batu dituzte txosnetako egitarauan. Txosnagunea hainbat espaziotan banatu dute. Erakustazoka barruan hiru gune izango dira. Kanpoan, berriz, sukalde zerbitzua eta eszenatoki bat egokituko dituzte. Txosna batzordeak aurreratu duenez, "etorkizunera begira, udalarekin batera txosnagune finko bat adosteko

prozesu bat abiatuko dugu".

Txosnagunea Landakon jarzteak aurreko urteetan bertan egiten ziren ekintzak lekualdatzea eragin du. Asko, Ezkurdin

Natxo Martinez hainbat urtez jai batzordeko presidente izandakoa omenduko dute, urriaren 10ean

izango dira, marmitako txapelketa, adibidez. Horretarako karpia handi bat egokituko du udalak. Bestalde, tren geltoki zaha-

rreko eremuan umeen parkea ipiniko dute, supermerkatuaren sarrera inguruan. Jaien amaiera ekitaldia, alboan, kotxe-toki zaharren lekuan egingo dute.

Natxo Martinez gogoan

Hainbat hamarkadatan jaiak antolatzen jardun zuen Natxo Martinez oroituko dute aurtten, udaletxeko txupinazoaren aurretik. Martinez urtarrilean hil zen, 54 urte zituela. 'Zezenak dira' antolatzen zuen, eta hainbat urtez jai batzordeko presidentea izan zen. Era berean, EAJko zinegotzia izan zen udalean. Mar-

tinez zezenzale amorratua zen. Hala, bere oroimenez, Balbino Garitaonandia plazan, Sokamuturraren inguruko eskulturaren inguruan, omenaldia egingo diote, urriaren 10ean, goizeko 11:00etan.

Motorrak berotzen

Jaiak, ofizialki, datorren asteburuan abiatuko dituzten arren, asteburu honetan ekingo diote egitarauari. Angelman sindromea duten umei laguntzeko jaialdia antolatuko dute, zapatuan, Landako Erakustazokan.

Era berean, kirol ekimenez bete dute asteburu. Gaur arratsaldean, Durango Nissan Gaur sa errugbi taldearen aurkezpena egingo dute, eta, zapatu arratsaldean, hainbat partida jokatu dituzte. Bestalde, domekan, Durangoko X. duatloi herrikoian ume zein helduek parte hartuko dute.

Azterketa ofizialak, ingelesa, frantsesa eta alemana



Alemana eta frantsesa
Gazteak eta helduak
Azken plazak!

The English Language Academy
www.englishlanguageacademydurango.com
Tel.: 946 819 088



UAI, 1 Industriagunea (Orozketa errepidea) · IURRETA
126 PK. Durango
www.amayaautoreparaciones.com
Tel.: 946 812 123 · Faxa: 946 203 818
oficina@amayaautoreparaciones.com

LOTERIAK · PRENSA · barik

IKERFER

Ermodo, 25 behea. Durango Tel.: 946 810 566

EGUIA S.L.

AROTEGIA

· GREMIOEN KOORDINAZIOA ·
Tel.: 946 817 746 - Faxa: 946 056 906
Mug.: 669 655 169 - Mug(2): 629 587 653

Tabira kalea, 54 · 48200 Durango · info@carpinteriaegui.com



San Ignazio auzunea, 1 behea
48200 Durango (BIZKAIA)
Tel.: 946 216 540

durango@tiendascolorplus.com
www.tiendascolorplus.com

INPRIMAGAILUETAN ADITUAK



3D
Digitalizazioa,
materiala, inpresio
lanak eta salmenta

Era guztietako inprimagailuentzako kartutxo original eta bateragarriak

Virginia Gonzalez | San Fausto jaietako kartelaren egilea

“Pena handia emango dit Durangoko jaietan ez egoteak”

Kartel egilea Virginia Gonzalez gazte durangarra da; ezingo da jaietan egon

> KARTELA Markel Onaindia Virginia Gonzalezek (Durango, 1995) egin du aurtengo jaietako kartela. Diseinu industrialeko karrera ikasten dabil, eta hortik etorri zaio kartela egiteko tre-bezia. Ohiturazko artopila da irudiaren protagonista, baina Patxikotxuren itxura eman dio Gonzalezek, eta jaietako beste hainbat elementu gehitu dizkio. Bitxia izango da, baina ez da aurtengo San Fausto jaietan egongo, Erasmus bekagaz kanpora doa eta.

Zenbat denbora behar izan duzu kartela egiteko?

Hiru egunean egin nuen. Arratsalde batean hasi nintzen lantzen, baina ez zitzaidan ezer irteten. Hurrengo egunean, ideia argiago neukan, eta orduan hasi nintzen egiten. Bihamunean amaitu nuen. Ideia sortzea izan zen gehien kostatu zitzaidana.

Zelan bururatu zitzaizun ideia? Brainstorming bat [ideia-jasa] egin nuen, San Fausto jaietako ekintzekin lotutakoa. Horrekin zerbait lortu ahal nuela uste nuen; objektuak Photoshop programan ipini nituen, eta horrela

irten zen. Durangoko jaietan bazen diren ikurrik nagusienak irudi bakarrean batzea izan zen nire asmoa.

Zelan animatu zinen lehiaketan parte hartzen?

Lagun batek eman zidan lehiaketaren berri; berak ere hartu zuen parte. Berari esker animatu nintzen.

Herritarren botoen bidez irabazi duzu lehiaketa. Kanpainarik egin duzu?

Oso pozik nago. 1.500 bototik gora lortu nituen; ez dut hainbeste

“**Nik egin dut kanpaina, bai, baina nire lagunek eta senideek, gehiago**”

“**Brainstorming** bat egin nuen, San Fausto jaietako ekintzekin lotutakoa”

jende ezagutzen. Nik egin dut kanpaina, bai, baina nire lagunek eta senideek, gehiago.

Diseinugintza gustuko duzu? Nondik dator zure afizioa?

Unibertsitateko karreraren hasi zitzaidan gustatzen. Diseinu industrialeko ingeniarietza egiten nabil, eta poster antzekoak egiteko ikasgai bat daukat. Horrela hasi naiz kartelak egiten.

Saria 1.000 eurokoa da. Zer egingo duzu diruagaz?

Bada, gastatu! [barrez]. Ez dut ezer zehatzik pentsatu, oraindik.

Eta jaietan ere ezingo duzu gastatu, ezta?

Ez, aurten ez naiz egongo eta. Erasmusen bidez kanpora noa, Milanera [Italia]. Sei hilabeterako noa. Pena handia emango dit Durangoko jaietan ez egoteak.

Zein izaten da jaietako zure ekitaldirik gogokoena? Zer ez duzu galtzen?

Herri bazkaria ez dut galtzen, eta herri kirolak ere asko gustatzen zaizkit. Kontzertuetara ere joaten naiz.



Virginia Gonzalez, udaletxe aurrean, kartelaren aurkezpen egunean.

CHAVES
TAPIZAK MOKETAK ALFONBRAK GORTINAK
LARRUKIAK LANERAKO BABES-JANTZIAK INDUSTRIAKO HORNIGAIK

DENDA ETA ERAKUSKETA:
Erretentxu, 28 behea
DURANGO

Tel.: 946 811 180
Faxa: 946 200 938

AGIRREZABAL
48200 DURANGO

elektrotresnak
Tel.: 946 202 284
Fax: 946 202 284
juan antonio abasolo, 10

e.aguirrezabal@euskalnet.net

zikloak
Tel.: 946 810 388
Fax: 946 202 284
frantzisko ibarra, 7 mikeldi

Azkonizaga
CRUZCAMPO • HEINEKEN • BUCKLER • AMSTEL • SHANDY • PEÑA CLARA • LA ASTURIANA
Ortuzar, 1 - 48213 Iuzurtza (Bizkaia) Tel./Faxa: 946 810 652 azkonizaga@azkonizaga.com
www.azkonizaga.com

oiz
SANEAMENDUA, LOZA, GASA, BEROGAILUAK BAINUGELARAKO ALTZARIAK
BILTEGIA UAI Industriagunea, 2 C - 48215 IURRETA
Tel.: 946 816 051 • Faxa: 946 818 545
ERAKUSKETA - DENDA Plateruen Plaza, z/g.
48200 DURANGO
Tel.: 946 810 693 • Faxa: 946 818 545

Jai zorientsuak opa dizkizuegu durangar guztioi!

EROSKI
ABADIÑO • zurekin!



CANTÁBRICO

ARRAINDEGIAK

astartetik ostiralera
8:30-14:00 // 16:30-20:30

--
larunbatetan
8:30-14:00

Jai zoriontsuak
durangar guztiei!



Montebideo, 9
48200 Durango

Tel. 94 621 65 05
609 20 45 68



Goian, Herriak antolatutako mobilizazioak. Behean, ezkerrean, lehenengo egoitza, eta eskuman, Manolo Gómez.

Herria auzo elkarteak, San Fausto jaien hasieran protagonista

38 urte egin berri dituen Herria auzo elkarteak emango die hasiera ofiziala Durangoko San Fausto jaietara; elkarteak aintzindaria da Durangon

> TXUPINAZOA J. Guenetxea
Ia lau hamarkadako ibilbidearen ostean, Herria auzo elkarteak botako du txupinazoa Durangoko jaietan. Albistea ez dute sorpresaz hartu elkarteak. Izan ere, Angel Longarte Herriako kideak aitortu duenez, “zortzi urte generamatzan ardura hori hartzeko hautagai moduan”. Albistea poztasunez hartu dute “elkarteak egindako lanaren errekonozimendua” delako. “Asko pentsatu eta gero”, hirukotea igoko da udaletxeko balkoira jaietara hasiera ofiziala ematera.

Urte hauetan, dedikazio handia izan duen pertsona bat aukeratu gura zuten txupina botatzeko, eta pertsona “egokiena” Manolo Gómez izango zela erabaki zuten, urteetan elkartearen diruzaina izan delako. 82 urte gaz, Gomezek txupinazoa botaz gero, beste pertsona bat aukeratu gura zuten pregoilari. Perico Arévalo aukeratu zuten, urte askoan presidente izan den elkartekidea. Baina, beste pertsona bat behar zuten, pregoia

euskaraz botako zuena, beraz, gaur egun elkartearen presidentea den Iruñe Arrondok osatuko du hirukotea.

Aitzindariak Durangon

70eko hamarkadaren hasieran, aitzindaria izan zen Herria. Auzo elkarteak izateaz gainera, mugimendu soziala izan zen. Gabezia handiak zituen Mata-

70eko hamarkadan gabezia handiak zituen Matadero auzoko gabeziak salatu zituen Herria auzo elkarteak

dero auzoko aldarrikapenak ozen salatu zituen elkartearen berre hastapenetan. Sasoi hartan, langilez betetako auzoa urbanizatu barik zegoela gogoratu du Longartek. Auzoaren ondoan zegoen hondakindegia gogora

ekarri du. “Zabortegi harea su hartzen zuten aldira, eta keak auzo guztia hartzen zuten”.

Era berean, gabeziak konpontzen zihozten heinean, kultur arloko ekintzak antolatzeari ekin zioten. Ezagunak dira elkarteak Durangon antolatutako kontzertuak. “Bakarlarri guztiak pasatu ziren hemendik: Milanés, Aute, Sabina, Imanol, Benito...”. Herriak beste norabide bat hartu zuten.

Sahararen alde

Saharar herriaren alde egindako karabana solidarioaren berri izan zuten Herriako kideak, eta burubelarri sartu ziren proiektuan, baita ume sahararrak udan hartzeko egitasmoan ere. Oraindik ere, arlo horretan dihardute Herriakoek.

Gaur egun, elkartearen egoitza Herria tabernan dute. Hala ere, hiltegia zegoen orubean udalak eraikitzeke asmoa duen zentro zibikora lekualdatu gura dute. Horrela, zentro hori kudeatzea da asmoa. Proiektua erredakzio fasean dago.

**JAI HERRIKOIEEN ALDE
TXOSNAGUNE FINKO BAT!**

SAN FAUSTOAK 2015



BARIKUE URRIAK

9

- 19:00 **KALEJIRA**
BIZKARGI 1937 ZANPANTZARREKIN
- 20:00 **TXUPINAZOA**
INTXAURRE LIBRE!
- 22:30 **NEVADAH +
SUMISION CITY
BLUES +
LASTEA PARTY**

ZAPATUE URRIAK

10

- GAZTE EGUNE**
- 12:00 **SORKUNTZA GUNEA**
UMEENTZAKO ERAIKUNTZA TAILERRA +
ADIN GUZTIETARAKO MARGOKETA
TAILERRA
>> EKARRI MARGOTZEKO KAMISETA,
DINHALA EDO JANZKIA
 - 13:00 **KARROPOTEDA***
 - 15:00 **GAZTE BAZKARIA**
 - 17:00 **OLINPIADAK**
 - 19:00 **ELEKTROMATXINGO
ELEKTROTXARANGA***
 - OSTEAN **LUNTXA GAZTETXEAN**
 - 23:00 **PERLAK + YOKO OUT +
KENITRA, SELEKTAH
STEFI (BAD SOUND SYSTEM)
ETA LAGUNAK**

DOMEKA URRIAK

11

- 12:30 **OILASKO PINTXO
DASTAKETA**
ETA DURANGALDEKO
TRIKITILARIEN ERAKUSTALDIA
- 19:30 **GORANTZ ERORI**
AKUSTIKOAN
- 22:30 **GANDRABAKUEK +
DR. MAHA'S MIRACLE
TONIC +
LOS ZOPILOTES
TXIRRIKIOS +
DJ TXAPARRON**

ASTELEHENA URRIAK

12

- UMIEN EGUNE**
- 11:00 **UMEEN PARKEA**
 - 17:00 **IPUIN KONTALARIAK**
 - 18:00 **KARIBEAR DANTZA IKASTAROA**
 - 20:00 **LAJODEDERA**

MARTITZENA URRIAK

13

- SAN FAUSTO
EGUNE**
- 12:00 **PAELLA TXAPELKETA**
 - 14:30 **SARI BANAKETA**
 - 17:00 **ERREKA JAITSIERA**
MARARIA ERREKAN ZEHAR
 - 19:00 **BERTSO SAIOA:**
UNAI ITURRIAGA + IGOR ELORTZA
+ MIREN AMURIZA +
TXABER ALTUBE
GAI JARTZAILEA: MAITE
BERRIOZABAL

BARIKUE URRIAK

16

- 18:00 **TORTILLA
TXAPELKETA**
- 19:00 **JAM SESSION**
- 20:00 **SARI BANAKETA**
- 22:30 **ZEBEL + PANIKS +
THE RIFF TRUCKERS +
ITSUA ETA DJ JACKIE**
(BEAT SALAD RECORDS)

ZAPATUE URRIAK

17

- MOZORRO EGUNE**
- 12:00 **UMEENTZAKO
SUKALDARITZA
TAILERRA**
 - 14:30 **ELKARTASUN
BAZKARIA**
 - OSTEAN **TOPA: PRESO ETA IHESLARIAK
ETXERA!
ETA ARGAZKIA**
 - 18:00 **EONIAN ELEKTROTXARANGA***
 - 23:00 **LUHARTZ**
 - OSTEAN **DJELEPUNTO**

DOMEKA URRIAK

18

- AGUR SAN FAUSTO**
- 18:00 **KONTZERTU AKUSTIKOAK**
KESHALA + ANARI

*TXOSNAGUNEAN HASIKO DIRA

DURANGOKO TXOSNABATZORDEA

JAIK HERRITIK ETA HERRIARENTZAT

‘Zure aurrekari penalak’ diskoa aurkeztuko du Anarik Durangon

Landako Guneko Txosnagunea makina bat kontzerturen kokaleku izango da

> MUSIKA Markel Onaindia Aurtengo udaberrian loratu da Anariren seigarren lana, *Zure aurrekari penalak* izenburupean. Azkoitiko musikariaren aurreko diskoetan bezala, mina eta sentimenduak dira, orain ere, protagonista. Indar handia emango diete bikote-hausturen ondorengo sentsazioei. Letretan aldaketa bat igarriko dute bere zale direnek; testuinguru sozialemo hainbat termino erabiltzen ditu, adibidez. Ahotsean ez dakar aldaketarik; betiko ahots urratuari eutsi dio. Bere kantu berriak urriaren 18an entzun ahaliko dira, arratsaldez, Landako Guneko Txosnagunean. Jaiak agurtzeko balioko du kontzertuak.

Beste makina bat kontzerturen kokaleku ere izango da Landako. Jaien hasieran, urriaren

9an, Las Tea Party musika-jar-tzaileak egongo dira, esaterako. Urriaren 11n, Kojon Prieto y Los

Urriaren 11n, Kojon Prieto y Los Huajalotesen oinordekoak diren Los Zopilotes Txirriaos ere etorriko dira

The Golden Apple Quartet taldeak Andra Marin eskainiko du ikuskizuna, urriaren 13an, 19:30etik aurrera

Huajalotesen oinordeko diren Los Zopilotes Txirriaos ere eto-

rriko dira. Bestalde, Luhartzek erromeria eskainiko du, hilaren 17an. Yoko Out eta Ganorabakuek Durangaldeko taldeek ere edukiko dute lekua, besteak beste.

Udalarenak, Ezkurdin

Udalak antolatu dituen kontzertu asko Ezkurdin izango dira. Urriaren 10ean, esate baterako, Itziarren Semeak eta Hesian taldeek joko dute. Udalak bi kontzerturen arteko lehiaketa parte-hartzailea antolatu zuen, eta herritarrek talde bi horien kontzertua aukeratu zuten. Rockaz gainera, hainbat erromeria egongo dira Ezkurdin. Bestalde, The Golden Apple Quartet taldeak Andra Marin eskainiko du ikuskizuna, urriaren 13an, 19:30etik aurrera.



Anarik seigarren lana aurkeztuko du.



Gazte Egunean ehunka lagun batuko dira, iaz lez. Ainara Petite

Txosnagunean, gauaz aparte, egunez ere egingo dute jaiak

Domekan, hilaren 11n, oilasko pintxo dastaketa egingo dute 12:30etik aurrera, eta, aldi berean, Durangaldeko trikitilarien erakustaldia ere bai

> EGUNEKOAK M.O.

Txosnagunean gauaz batuko da jende gehien, parranda egiteko asmoz. Baina, Txosna Batzordeak egunez ere jaiak egiteko aukera eskainiko du. Gainera, azken urteetan, goizez edo arratsaldez jende asko batu izan da, bazkarietan edota kontzertuetan, adibidez.

Urriaren 10ean, Gazte Eguna ospatuko da txosnetan, eta goizetik, sorkuntza tailerra eskainiko dute umeentzat. Eguerdian poteoa egingo dute, eta 15:00etan bazkaria. Arratsaldez, olinpiadetan arituko dira gazteak. Urriaren 11n, oilasko pintxo dastaketa egongo da, 12:30etik aurrera, eta aldi berean, Duran-

galdeko trikitilarien erakustaldia ere bai. 19:30ean, Gorantz Erori taldearen emanaldi akustikoaz gozatu ahaliko da.

Urriaren 10ean, Gazte Eguna ospatuko da txosnetan, eta, goizean, sorkuntza tailerra eskainiko dute umeentzat

Hilaren 12an, Umeen Eguna ospatuko da; goizean, umeen parkea ipiniko dute, eta arratsaldean, ipuin kontalariak etorriko dira. Gainera, Karibeko dantzen ikastaroan parte

hartzeko aukera ere egongo da. 20:00etan, La Jodedera taldeak kontzertua eskainiko du.

Erreka jaitziera, 13an

San Fausto egunez, ohiturazko paella txapelketa eta erreka jaitziera egingo dituzte. 19:00etan, bertso saioa egongo da. Igor Elortzak, Unai Iturriagak, Miren Amurizak eta Txaber Altubek abestuko dute, Maite Berriozabalen gidaritzapean.

Barikuan, urriaren 16an, tortilla txapelketa egingo da, iluntzean. Zapatukoa egun handietako bat izango da, Mozorro Eguna deitu dute eta. Eguerdian, elkartasun bazkaria ere egingo dute.



ARANTZA ÁLVAREZ
PSIKOLOGOA - SEXOLOGOA
Nº Col. GZ-1517

- Orientazioa – Sexu informazioa
- Sexu terapia
- Bikotekide aholkularitza
- Bikotekide arteko haustura gainditzeko laguntza

Kontsulta Durangon eta Eibarren
Tel.: 645 732 388 · sexologiaypareja@hotmail.com
www.centrodesexologia.com



**GOZATU
SAN FAUSTO
JAIK!**

**Menu berezia urriaren 10, 11, 12 eta 17an
Goizaldera arte bertan aurkituko gaituzu**

Barrikada altxatuko dute Karrikakoek Ezkurdin, 'Zapoi' obra berria aurkezteko

Egoitza duen antzokitik bota gura duten konpainiaren istorioa estreinatuko du Karrikak, urriaren 9an



Kultur eta antzerki munduaren egoeraz gogoeta egiten du Karrikak kale antzezlan berrian.

> ANTZERKIA Itsaso Esteban "Konortea galdu arte mozkortu" esan gura duen *Zapoi* errusiarzako berba hautatu du Durangoko Karrika Antzerki Taldeak, sortu duen azken antzezanaren izenburutzat. Urriaren 9an, Durangoko jaietako Txosnaguneko txupinazoaren ostean, 22:00etan,

Ezkurdin eskainiko dute, lehenengoz, kale antzezlan hori. Ikusleentzat aulkiak ipiniko dituztela azaldu dute, eta euria egiten badu, karpa barrura lekualdatuko dutela emanaldia.

Hamabi atalek osatzen dute *Zapoi* antzezlana, eta hamabi aktore daude uneoro eszenan.

Ahotsa lantzeko ikastaro bat egin ostean, musikal bat egiteko asmoagaz hasi zen Karrika, iazko ikasturte hasieran. Azkenean, kale antzezlan bat egingo dute; musikaren, erritmoaren, ahotsaren eta berbaren lanketa berezia daukana, eta kantuari ere lekua egingo diona.

Fikziozko antzerki konpainia bat sortu dute antzezlan honetarako. Munduaren eta kulturaren ikuskera hegemonikoagaz, merkantilistagaz, bat ez datorrena, eta krisi ekonomikoaren aitzakian, egoitza daukan antzokitik bota gura dutena.

Txosnaguneko txupinazoaren ostean, 22:00etan, Ezkurdin eskainiko dute antzezlana, lehenengoz

Ez dute, baina, antzerki konpainia erraz kaleratzerik lortuko: kanporatzearen kontrako erresistentzia agertuko dute konpainiako kideek, matxinatu egingo dira, eta barrikada bat osatuko dute antzokian.

Emozioak dira antzerkiari eta kulturaren egoerari buruzko antzezlan honen ardatza, eta alde emozional horren adierazle proposa delakoan, Euripidesen *Medea* klasikoaren testu zati batzuk sartu dituzte gidioan.

Jose Martin Urrutia *Txotxe* zuzendariaren berbetan, "besteak beste, Karrikak emakume gorputza daukalako, genero ikuspegi landua du *Zapoi* obrak. Gaurko kultur munduan gailentzen den ikuspegiari kontrajarrita dago konpainia honen mundu ulerkera.

Pertsonaia esperpentikoak Karrikak sortu duen antzerki konpainia honetako kide guztiek dute izaera edo itxura berezia. "Esperpentikoak" dira: "Denek dute tararen bat, fisikoa ez bada, adimenekoa".

Kultur munduaren egoeraz gogoeta egiten du Karrikak, antzezlan honetan. *Txotxe* zuzendariaren berbetan, "dagoeneko ia ez da existitzen gure antzezlanean agertzen dena bezalako konpainiarik: ekoizpen kultural zehatzak muntatzen dira, eta saldu, baina ezegonkortasun itzela dago lanbidean".

Durangoko San Fausto jaien egitarauaren barruko emanaldi hau prestatu, eta obra urrian estreinatzea nahikoa erronka izan dutela aitortu dute Karrika Antzerki taldeko kideek; eta aurrerantzean, obrak zer ibilbide egin dezakeen ez dakitela. Diotenez, aukera ailegatzat denean pentsatuko dute kale antzezlana antzokitian eskaintzeko moldatuko dutenentz, eta nola.

Duatloi herrikoiak hamarkada bat egingo du, domeka honetan

Mugarra Triatloi Taldeak duatloia sustatzeko helburuz antolatzen du urtero



Gaszte zein nagusi, ehunka lagunek parte hartzen dute duatloian. MugarraTT

> JAIK Joseba Derteano Mugarra Triatloi Taldeak Durangoko jaien harira antolatzen duen duatloi herrikoiak hamarkada bat egingo du aurten. Domeka honetan izango da, 10:30etik aurrera. Ibilbideak Santa Ana plazatik abiatuko dira.

Kirol hori ezagutaraztea eta gaztetxoei probatzeko aukera eskaintzea izaten da helburua. Lehiatik haratago, duatloia inguruko jai moduan planteatzen dute. Herrigunean zehar, hainbat ibilbide antolatzen dituzte, adin tarteka banatuta, eta jai giroa herriko txoko guztietara zabaltzen da. Ekimenean batutako dirua Mugarra Triatloi eskolari laguntzeko baliatuko dute: "Azken finean jai giroan kirolaz gozatzea da helburua, eta, distantziak, nahi duten ume guztiek parte hartu ahal izateko eta ondo pasatzeko pentsatuta daude", azaldu dute Mugarako kideek.

Ibilbideak errazak izango dira, eta ez da sailkapenik egingo.

Izen-ematea Santa Ana plazan egin daiteke, egunean bertan, 09:00etatik aurrera, lasterketak hasi baino ordu laurden lehenagora arte; hiru euro da nagusientzat, eta euro bat 14 urtetik beherakoentzat. Zortzi eta hamalau urte arteko duatloia izango da lehenengoa. 10:30ean hasiko da. 600 metroko saio bi egingo dituzte korrika, Alde Zaharrea. Korrikaldi bien artean, Tabirako igerilekue-taraino eramango dituen hiru kilometroko beste saio bat osatu

Hiru ibilbide egongo dira, adin tarteka banatuta, eta Santa Ana plazatik abiatuko dira, 10:30etik aurrera

beharko dute, bizikletan.

Ondoren, 11:00etan, zazpi urtera arteko gaztetxoentzako ibilbidea hasiko dute: 600 metro korrika (300 metroko saio bi) Alde Zaharretik, eta kilometro bat, bizikletan, Pinondo, Laubideta eta Santanostetik. Umeek gurasoekin batera egin dezakete.

Azkenik, 12:00etan, 15 urtetik gorako duatloiarik egingo diote. Korrikako sektoreak (4 km-ko saio bi) Barrenkale, Komentukale, Antso Estegiz, Kale-

barria eta Goienkaletik izango da. Bizikletako 11 kilometroko ibilbideak Santikurutzeko bide-
ra —Errotatik gora— eta Abadiño-
ko txaletetara eramango ditu parte-hartzaileak.

URRIAK 4 Santa Anatik

• 8-14 urtera artekoa:

ORDUA
10:30ean

IBILBIDEA
600 metro korrika,
3 km bizikletan,
eta 600 metro korrika.

• 7 urtera artekoa:

ORDUA
11:00etan

IBILBIDEA
300 metro korrika,
km 1 bizikletan,
eta 300 metro korrika.

• 15 urtetik gorakoa:

ORDUA
12:00etan

IBILBIDEA
4 km korrika,
13 km bizikletan
eta 4 km korrika.

ALMACENES ARRASATE

TIEN 21

SIEMENS

AEG

ARISTON

Balay

BOSCH

Vaillant

Electrolux

LG

Miele

Panasonic

SAMSUNG

Saunier Duval

Whirlpool

Panasonic hilabetea

 <p>A++ 1000 b/min 7kg</p> <p>299€</p> <p>NA-107VC5 GARBIGAILUA</p>	 <p>A+++ 1200 b/min 7kg</p> <p>335€</p> <p>NA-127VB6 GARBIGAILUA Karga sentsorea. Apar sentsorea.</p>	 <p>A+++ 1200 b/min 8kg</p> <p>385€</p> <p>NA-128VB6 GARBIGAILUA Karga sentsorea. Apar sentsorea.</p>	 <p>A+++ 1400 b/min 8kg</p> <p>475€</p> <p>NA-148XR1 GARBIGAILUA Inverter motorea eskuilarik gabe, 10 urteko bermea.</p>	 <p>A++ 2000 x 600 x 650 42dB 339 L 254 + 85</p> <p>735€</p> <p>NR-BN34AX1-E HOZKAILUA Total No Frost.</p>
 <p>A++ 2000 x 600 x 633 42dB 334 L 254 + 80</p> <p>665€</p> <p>NR-BN34AW1 HOZKAILUA Total No Frost.</p>	 <p>A++ 1850 x 600 x 650 42dB 307 L 222 + 85</p> <p>665€</p> <p>NR-BN32AXA-E HOZKAILUA Total no Frost.</p>	 <p>A++ 1850 x 600 x 650 42dB 307 L 222 + 85</p> <p>615€</p> <p>NR-BN32AWA-E HOZKAILUA Total no Frost.</p>	<p>85€</p> <p>800W 443 x 340 x 258 20L</p>  <p>NN-K101W MIKROUHIN-LABEA 1.000 W-eko grill-a.</p>	<p>145€</p> <p>950W 488 x 395 x 279 23L</p>  <p>NN-GD351W MIKROUHIN-LABEA Inverter teknologia.</p>
<p>329€</p> <p>100HZ</p>  <p>TX-32CS510E TELEBISTA</p>	<p>565€</p> <p>400HZ</p>  <p>TX-40CS630E TELEBISTA</p>	<p>730€</p> <p>400HZ</p>  <p>TX-50CS630E TELEBISTA</p>	<p>950€</p> <p>4K 800HZ</p>  <p>TX-50CX700E TELEBISTA</p>	<p>1020€</p> <p>4K 1000HZ</p>  <p>TX-43CX750 TELEBISTA</p>



Zure atsedenaldia hobetzen lagunduko dizugu



Zuri egokitutako aholkularitza dugu. Kalitate handiko koltxoiekin eta polipiel edo egurrezko kanapeekin packak egiten ditugu, deskontu interesgarriak eskaintzeko.




Ondo pasau jaixetan!

Olleria, 3 Durango - Bizkaia · Tel.: 946 550 700 · gau-tu@hotmail.com · www.gau-tu.com

> PROGRAMAZIOA I. Esteban Lara Izagirre zornotzarrak zuzendu duen *Un otoño sin Berlín* filmaren emanaldi bereziak hartuko ditu, urriaren 21ean, 22an, 24an, 25ean eta 27an, Zornotza Aretoak. Izagirrek Aretoako programazioaren aurkezpenaz azpimarratu zuenez, “filma egiterakoan herrikideek erakutsi diguten laguntza eskertzeko” egingo dituzte zornotzarrentzako doako zortzi emanaldiak.

Zornotzan grabatu zuen Izagirrek bere lehenengo film luzea, eta Donostiako 63. Zinemaldian aurkeztu du. Zinegile zornotzarraren berbetan, “zentzu batean, zornotzar guztiena da filma”. Horregatik, zornotzarrentzako bideo berezi bat osatu du Gariza Produzioak ekoizteak grabazioko irudiekin.

Zornotzako ikastetxei zuzenduriko emanaldi bereziak prestatzeko asmoa ere badauka Lara Izagirreren lan-taldeak. “Gazteei erakutsi gura diegu, lan eginez gero, posible dela hau bezalako proiektu bat aurrera ateratzea”, azaldu dute.

Anita Maravillas taldeko Miren Larreak ere Zornotzan estreinatuko du *Pintto Pintto* antzezlan berria, lana prestatzen jardun den Areto horretan. Txotxongiloak eta antzerki lana uztartzen dituen ikuskizuna



Miren Larrea antzerkigileak, Andoni Agirrebeitia alkateak, Luisja Ugarte programatzaileak eta Lara Izagirre zinegileak aurkeztu zuten Aretoako programazio berria.

Zornotzarrentzat doan eskainiko dute ‘Un otoño sin Berlín’ urrian, zortzi emanalditan

Astelehenean aurkeztu zuten Zornotza Aretoaren urriko, azaroko eta abenduako eskaintza kulturala

da, lau urtetik hasita, edozein adinetako ikusleentzako modukoa dena. Larreagaz, beste bi zornotzarrek ere parte hartzen dute, gainera, *Pintto Pintto* ikuskizunean; Fran Lasuenena da musika, eta Jabi Renobalesena

zuzendaritza lana. Azaroaren 7an, 18:00etan, egingo dute, estreinaldia, Zornotzako Aretoan.

Astelehenean, Zornotza Aretoan egin zuten prentsaurrekoan parte hartu zuten Izagirre eta Larreak. Luisja Ugarte

programatzaileak esan zuenez, “kultur eskaintza oparoa zabalteaz gainera, euren ideiak baldintza egokietan garatzeko aukera ematen die Zornotza Aretoak sortzaileei, eta Izagirre eta Larrea horren adibide dira”.

Ligeros de equipaje: Crónica de la retirada antzezlanagaz hasiko du ikasturte berria Zornotza Aretoak, gaur, eta Kine film laburren lehiaketaren lehenengo edizioa ere hartuko du, asteburu honetan.

Abian da Elorrioko 21. Literatur Lehiaketa

> LITERATURA

Hamazortzi urtetik beherako elorriarrei zuzenduta antolatu dute Literatur Lehiaketaren 21. edizioa. Aste honetan hasita, abenduaren 1era arte, gutxienez bi liburu irakurri, eta liburutegian emandako fitxak beteta entregatu beharko dituzte parte-hartzaileek. Erabiltzaile bakoitzak dagokion adin-tarteko irakurgaita aukeratu beharko du liburutegiko katalogotik.

Abenduaren 11n egingo dute sari banaketa ekitaldia. Saridunak aukeratzeko, jasotako fitxen kopurua zein kalitatea hartuko dituzte kontuan, antolatzaileek adierazi dutenez.

Gutxienez bi liburu irakurri, eta liburutegian emandako fitxak beteta entregatu behar dira

Zugan Ni gazteen antzerki tailerra martxan da, 9. urtez

> ANTZERKIA

Durungaldeko gazteei antzerki mundura gerturatzeko aukera eskainiko die Zornotzako Markeliñe antzerki taldeak, ikasturte honetan ere, Zugan Ni proiektuagaz. Bederatzigarren edizioa burutuko dute.

“Bitarteko bikaina da antzerki munduaren erraiak eta sorkuntza prozesuak ezagutzeko”

Zornotzan, Igorren, Iurretan eta Durangon egingo dituzte saioak, eta www.zuganni.blogspot.com.es webgunean eman daiteke izena.

Antolatzaileen berbetan, Zugan Ni programa “bitarteko bikaina da gazteek antzerki munduaren erraiak eta sorkuntza prozesu batek dakarren guztia” ezagutu dezaten.

Han-hemengo errealitate sozialen inguruko dokumentalak, Elorrion

Urriaren 3an, 4an eta 5ean emango dituzte Cine Invisible jaialdiko hainbat film

> ZINEMA

KCD (Kultura Comunicación Desarrollo) Gobernu Kanpoko Erakunde bilbotarrak zarpigarrenez antolatu duen Cine Invisible film sozialen jaialdiaren lagin bat Elorrioko Arriolan eskainiko dute, asteburu honetan. Hainbat herrialdeko errealitate sozialak lantzen dituzten zortzi film emango dituzte, gaur, bihar eta etzi, Elorrion.

Alemanian sortutako *Dustin* animaziozko film laburrak hasiko du jaialdia, gaur, 22:30ean, eta Nikaraguako emakumeen kooperatiba bati buruzko *Soñando despiertas* eta *Life is waiting* AEB eta Mendebaldeko Saharako dokumentalak emango dituzte, ondoren. Mendebaldeko Saharak Marokoren partetik jasaten duen biolentziaren kontakizuna da *Life is waiting*.

Urriaren 4an, 20:00etan hasita, dokumental bi emango dituzte Arriolako pantailan: euren

lurraren aldeko Mexikoko indigenen borroka islatzen duen *Agua sagrada*, eta *Boxing for freedom* Afganistanen eta Espainiaren arteko ekoizpena. Bere herrialdeko boxeolaririk onena bilakatu zen Sadaf afganiarrari buruzko filma da azken hori.

Domekan, etzi, Errusian homosexualen bizi duten krimi-

nalizazioari buruzko *Primavera rosa en el Kremlin* Errusiako eta Espainiako sortzaileen dokumentala, eta *N'Diawaldi Bouly* Mauritaniar kokaturiko istorioa emango dituzte, batetik. Gainera, Lorea Pérez de Albéniz euskaldunaren *Itsasoari begira* dokumentala ere emango dute, domekako saioan.



‘Boxing for freedom’ filma bihar emango dute.

Miguel Nadal Furriel, 'Miki' | Zaragoza (Espainia), 1967 | Aktorea

“Hiru urtean nabil ikuskizun honegaz; seinale ona da hori”

‘Mikipedia’ izeneko bakarrizketa eskainiko du Miki Nadal aktoreak, bihar, Durangoko Plateruenean

> ANTZERKIA Itsaso Esteban Nondik zabilta ANBOTOren galderei erantzuten?

Zapeando telebista programa prestatzen dugun batzar-gelatik nabil, programa hasi baino lehentxoago.

‘Mikipedia’ ikuskizuna dakarzu Plateruenera. Zelakoa da?

Ahalik eta jende gehienari, ahalik eta denbora luzeenean, barre eragitea du ikuskizunak helburu. Ikuslego ahalik eta zabaleneri umorea eskaintzea, horixe da daukadan jomuga.

Hiru urte daramatzazu ikuskizun honegaz. Zelako harrera egin dizute emanaldietan?

Hiru urteren ostean, ikuskizunagaz darrat, eta seinale ona da hori. Ikuskizun ateporala da, eta jendeak ondo hartzen jarraitzen duen bitartean, gustura jarraituko dut eskaintzen.

Askotan jardun zara Euskal Herriko antzokietan?

Bai, askotan, eta hainbat ikuskizunegaz. Zalantza barik, Euskal Herrira joaten jarraitzeko asmoa daukat, nire lekurik kuttunenetako bat baita antzetzeko: ikuslego itzela topatu izan dut Euskal Herriko antzokietan.

Zeintzuk dira hemengo ikuslegoaren ezaugarriak?

Oso publiko maitakor eta naturala topatu dut beti. Oso gogoko dut euskal ikuslegoa.

Egunero diharduzu ‘Zapeando’ programan. Gogorra al da eguneroko maiztasun hori?

Zuzeneko programa bat da, eta

horixe da, hain zuzen ere, niri gehien gustatzen zaidana. Oso ohituta nago horrelako programetan jardutera, eta horrelako ordutegian lan egitera. Urte askoan ibili naiz horretan.

“*Ikuslego ahalik eta zabaleneri barre eragitea da nire helburua*”

Datozen orduetan, zer lan konpromiso daukazu?

Aste oso bete daukat. Eguneroko programan jarduteaz aparte, hainbat publizitate kanpainaren grabaketa egin behar dut. Goizeko 08:00etan hasiko ditut lanegunak asteon, eta 19:00etan amaitu. Eta dakizuen bezala, zapatu gauean, Durangon amaituko dut lan astea: *Mikipedia* ikuskizunaren emanaldiagaz.

Zelan daroazu aurpegi ezaguna izatea?

Denera ohitzeko gai gara...

Zure Twitter-eko profilean, ‘neure buruari jarraika nabil’ diozu. Zaila egiten zaizu zure erritmoari jarraitzea?

Egia esan, bai. Gauza asko egiten dituen nagia naiz.

Zer proiektu daukazu, momentu honetan, eskuartean?

Telebistan, antzokietako biragaz, eta kide naizen Nostromo zinema ekoiztetxeagaz ere lanean dihardut.



“*Telebistan, zuzeneko programetan jardutea da gehin gustatzen zaidana*”

Irailean, 18 urte bete dira telebistan hasi zinela. Zelan gogoratzen duzu Pepe Navaroren programako hasiera hura?

Lehenengo izatera, ilusio handia egin zidala gogoan dut. Garai hartan, ez nuen pentsatzen hainbeste urte emango nituela telebistan lanean.

Orain bezainbat eskaintza jaso duzu beti, ala igaro duzu estutasunen bat?

Zorte handia izan dut beti. Gelditu naizenetan, atsedean hartzeko egin izan dut.

Wikipedian zuri buruzko sarre oso zabala dago. Zer deritzozu dioenari?

Ideiarik ez daukat nork idatzi duen, baina badaude akats batzuk. Edozelan ere, *Mikipedia* ikuskizunean horretaz ere egiten dut berba, eta nahiko argi uzten dut nire jarrera.

Zuzenbidea ikasi zenuela irakurri dugu. Antzerkiko eta telebistako lanean baliatu ahal izan duzu bertan ikasitakorik?

Musean jokatzen ikasi nuen, eta maisua naiz horretan!

“*Publiko maitakor eta naturala topatu izan dut beti Euskal Herriko antzokietan*”

GEURE DURANGALDEA

AINHOA URIEN

Ikaslea



Biluztu gaitezen!

Zuhaitzen zimurtasunak akusatzen du udazkena, kaleak orbelez bete orduko erratzarekin batzen ditugu denboraren zirkuluan gure patu miserablea ezabatu nahi bagenu bezala. Zahartzeaz eta galtzeaz hitz egiten digute orbelok eta begi-bistatik apartatzen ditugu gure izateari ostikada emanez, gu bezala zapaltzean oihu egiten duten hosto zimurrok ispilu dira, haiek bezala galduko baikara.

Bat-batean, urteen jira-birari erreparatu diot, eta hor ikusten dut nire burua denbora eta espazio kontingente batean kokatuta, finkatzera iritsi gabe eta akorduan ez nituen hankak ditut zain lurrean.

Honela, goizeko bederatzietan, klasean bibotedun filosofo antiplatonikoa irakurtzen topatzen ditugu geure buruak. Hasierak, jatorriak... pentsarazten duten hitz potoloak eta hasiera (hasierarik izan bagenu bederen) hartatik kasualitatezko eboluzio batekin hemen gaudu, ez gara beharrezko, txiripaz munduratuok mundua eraldatu behar omen dugu; ausazko izateari uko egin nahiko bagenio bezala eta Darwin gurutziltzatu, lurrikararen epizentro izateko ametsetik esnatu gintuen mardikatua. Eta orain, geu gara (baldin bagara) lurrikarak sakabanatutako hondakin solido pentasalarriak, unibertsoa eboluzio organiko soil batetik libratu dugunak. Kasualitatez, interesgarri egin gara.

Barkatu, irakurle, baina Nietzscheren liburuak nihilismotik haragoko zerbait bizitzeko erakusten ei du, eta ez zait artikulu honetarako beste ezer otu kurtso hasiera filosofia indartsu batekin ekiteko, filosofia ikasiz eta eginez saiatzen bainaiz neure burua biluzten, eta artikulu hau gonbidapen bat baino ez da ispiluaren aurrean arropak erazten hasteko.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.net
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA	MIKIPEDIA	Pub Quiz 6	
EGUNEKO MENUA IGANDEETAN MENU BEREZIAK	URRIAK 3 22:30etan MIKI NADAL BAKARRIZKETA	URRIAK 23 21:15etan DURANGO'S PUB QUIZ LEHIAKETA	URRIAK 25 18:00etan KANTALDIA KANTALDIA

¡Ahora!
Maite Guevara
Urriaren 3an
20:00etan

En un lugar del Quijote
Ron Lalá y Compañía Nacional de Teatro Clásico
Urriaren 11an
20:00etan

Sanagustinalde, 12
Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango-udala.net

San Agustín KULTUR GUNEA
URRIBIARTE 100

Emakumeen Bira nazioarteko egutegitik irteteko arriskuan

UCIk ez du World Tour egutegian sartu; iritziz aldatu ezik, nazioarteko egutegitik irtengo dira, eta estatu mailako lasterketa antolatuko dute



Aurten arte, munduko talderik onenak etorri izan dira lurretan hasten den Emakumeen Birara.

> TXIRRINDULARITZA J.D.

Emakumeen Bira munduko izarririk handienen bilgune izan da 28 urtez, baina estatus hori galtzeko arriskuan dago. UCIk emakumeen World Tour egutegia sortu du aurten, eta ez dute Emakumeen Bira sartu. Tropeleko talderik indartsuenek egutegi berri horretan parte har-

tuko dute. Emakumeen Birak nazioarteko izaerari eusten dio —2.1 mailagaz izendatuta dago—, baina txirrindularitzako “Txapeldunen Ligatik” kanpora utzi dutenez, munduko 10 talderik indartsuenak ez lirakeke Birara etorriko.

Baldintza horietan, Emakumeen Birako antolatzaileak ez

daude nazioarteko egutegian jarraitzeko prest: “Gastu ekonomikoek zein antolaketak eskatzen dituen lanak ez gaituzte konpentsatzen”, adierazi du Agus Ruiz Iurretako Emakumeen Bira Ziklismo Kirol Elkarteko ordezkariak. Beraz, egoera aldatzen ez bada, nazioarteko egutegitik irtengo dira, eta, da-

torren urtean, estatu mailako lasterketa antolatuko dute. Emakumeen Birak aurrera jarraituko du, baina beste maila batean.

UCIri asmo horren berri jakinarazi dio elkarteak, idatziz. 15 bat egunen barruan erantzunik jaso ezik, erabakia behin betiko bihurtuko dute: “World Tour-ean sartzeko aukerak asko handitzea dakar, eta ezin dugu luzaroan itxaron. Orain jakin behar dugu, aurrekontuak bermatzeko lanetan hasteko”.

Antolatzaileek abuztuan egin zioten UCIri Emakumeen Bira World Tour-ean sartzeko eskara. Beharrezkoa balitz, Biraren data —ekain hasieran— aldatzeko prestutasuna ere azaldu zuten, baina alferrik izan da. Ruizek ez du erabakia ulertzen: “Horrelako gutxiespenak egitea ezin dugu onartu. Xumeak gara, bai, ez dugu beste antolatzaile batzuen entzute eta indarririk, baina ez diogu inori ezer zor. Dena zuzen bete izan dugu beti, eta, gainera, tradizio handiko lasterketa da”.

Gutuna federazioari

Bira Espainiako Estatuan egin den emakumeen nazioarteko lasterketa bakarra da. Horregatik, astelehenean, gutun bat bidali zioten Espainiako Txirrindularitza Federazioari, kontu honetan esku hartu, eta UCiren aurrean Bira defendatu dezan.

Zornotzan herri martxa, etzi, Espinosaren oroimenez

> MARTXA

Domekan, Andres Espinosa mendizalearen oroimenezko martxa izango da Zornotzan, udalak, Ametx erakundeak eta Zornotza Mendi taldeak antolatuta. Proba 08:30ean hasiko da, Jauregibarriako lorategi botanikoan. Ibilbideak 22,5 kilometro ditu. Sei urtetik gorako gazteentzat beste ibilbide bat

ere antolatuko dute. 10:00etan hasiko da parke botanikoan, sei kilometroko luzera izango du, eta une oro begirale bi egongo dira gaztetxoak zaintzen.

Andres Espinosa zornotzarra (1903-1985) mendizale ezaguna izan zen. 1929an eta 1930ean, bera izan zen Mont Blanc eta Kilimanjaro mendietara bakarrik igo zen lehen pertsona.

Zaldibar ezagutz, herri martxa egingo dute, domekan

> MARTXA

Zaldua Mendi Taldeak herri martxaren bigarren aldia antolatuko du, domekan. 09:00etan irtengo dira Zaldibarko udal-txe pareko plazatik. Zaldibarko

inguruetatik 14,5 kilometroko ibilbidea osatuko dute parte hartzaileek. Zaldibarren hasita, Okango, Arietza, Goierrri eta Santamañezarretik ibiliko dira, bestea beste. Ez da martxa lehia-korra izango, eta koadrilan zein familian egiteko ibilbide aproposa dela diote mendi taldeko kideek.

Martxaren amaieran luntxa egongo da parte-hartzaile denentzat, eta taldeko argazki bat ere aterako dute.

Maisua ikaslearen aurka, lurretako pilota partiduan

> ESKUPILOTA

San Migel jaien barruan, goi mailako pilota partidu batez gozatzeko aukera dago gaur, 22:00etan, Olaburu pilotalekuan: Pablo Berasaluze eta Ibai Zabala berriztarrak Mikel Urrutikoetxearen eta Andoni Aretxabalarearen aurka ariko dira.

Urrutikoetxea gaur egungo buruz buruko txapelduna da. Azken hiru-lau urteetan, Iurretan entrenatu da Berasaluze beraren eta Josetxo Areitoren

aginduetara, eta bere gorakadan zerikusi zuzena izan dutela azaldu du partiduaren aurkezpen ekitaldian. Maisuak ala ikasleak irabaziko ote du gaur?

Irabazleek ‘Iurretako-25 urte trofeo’ izeneko txapela jantziiko dute. Iurretako desanexioaren urteurrena gogoratuko du partiduak.

Trofeo honetarako sarreren prezioa 15 euro izango da jarrিতako eserleketan, eta 10 euro zutik ikusteko guneetan.



Pilotariak, lurretako alkatea eta Olaburu elkarteak, aurkezpenean.

> AGENDA

> FUTBOLA

BIGARREN B MAILA

Amorebieta - Real Sociedad B
· Zapatuan, 16:00etan, Urritxen.

HIRUGARREN MAILA

Durango Kulturala - Aurrera Vitoria
· Zapatuan, 17:00etan, Tabiran

OHOREZKO MAILA

Elorrio - Loiu
· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden.

MAILA GORENA

Abadiño - Larramendi
· Zapatuan, 11:30ean, Astolan.

LEHEN ERREGIONALA

Amorebieta B - Peña
· Domekan, 17:00etan, Txolonen.

Ezkurdi - Fruiz

· Zapatuan, 16:00etan, Arripausuetan.

BIGARREN ERREGIONALA

Iurretako B - Artibai
· Zapatuan, 15:30ean, Larakozelaian.

Zaldua B - Lezama

· Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian.

> ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Sasikoa Durango - Legorreta
Domekan, 12:00etan, Landakon.

EUSKAL LIGA

Elorrioko Buskantza B - Atxurre Bakio
Zapatuan, 18:00etan, Elorrioren.

Mallabia Seguros Altaldi - Kukuyaga Etxebarri
Domekan, 17:00etan, Zaldibarren.

LEHEN ERREGIONALA

Elorriko Txiki - Ibaibidea
Domekan, 12:00etan, Elorrioren

> ERRUGBIA

OHOREZKO B MAILA

Durango Nissan Gaurisa - Bera Bera
Zapatuan, 18:00etan, Arripausuetan.

EUSKAL LIGA (neskak)

Durango Nissan Gaurisa - Getxo Rugby Taldea
Zapatuan, 19:30ean, Arripausuetan.

> ESKUBALDIA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Ibaizabal - Zuazo
Zapatuan, 19:00etan, Durango Landakon.

> PILOTA

SAN FAUSTO ZESTA TORNEOA (final laurdenak)

- **Bidart- Berriatua**
- **Hossegor - Markina**
Zapatuan, 18:00etan, Durango Ezkurdi Jai Alai.

- **Donibane Lohitzune - Gasteiz**
- **Biarritz - Durango**
Domekan, 12:00etan, Durango.

OLAZAR TXAPELKETA

Lau Yerdian: Zubiria / Mitxelena
Binaka: Dorronsoro-Perez / Larrañaga-Peñas
Urriak 8, 21:30ean, Zaldibarren

Tabira igeriketa eta salbamendu taldeak 10 domina Europa mailan

Europako txapelketan 10 domina irabazi dituzte, eta Espainiakoan 22



Tabirako kideak Europako eta Espainiako dominak erakusten. Tabira taldea



Tabirako kideak podiumean, klubeko banderagaz. Tabira taldea

> IGERIKETA J.Derteano

Irailaren 23tik 27ra, salbamendu eta sorospeneko Europako txapelketa jokatu dute Torreviejan (Alacant). Durangoko Tabira igeriketa taldeko kirolariek 10 domina irabazi dituzte, tartean urrezko bi. Egun horietan, Espainiako txapelketa ere lehiatu dute, eta Tabirak beste 22 domina irabazi ditu.

Estibaliz Hernandezek lortu du uztarik oparoena: Europako txapelketan bost domina irabazi ditu, urrezko bat tartean; Espainiakoan 9 domina lortu ditu.

Europa mailako bigarren urrea Eduardo Cortazarrek irabazi du. Horri, Espainiakoan lortutako beste hiru gehitu behar zaizkio. Gonzalo Diazek brontzezko bi eskuratu ditu Europakoan, eta sei domina Espainiakoan. Ana Barturen Europako zilar batekin eta Espainiako hirurekin itzuli da. Azkenik, Victor Zabalak brontzezko domina irabazi du Europakoan, eta zilarrezko bat Espainiakoan.

Txomin Marañon gaztea bigarren Euskadiko Kopan

> MENDI LASTERKETA J.D.

Txomin Marañon durangarrrak (Durangaldea Running) Gorbeia Suzien mendi lasterketa irabazi zuen, junior mailan. Joan zen asteburuko emaitza horrekin, bigarren tokian amaitu du Euskadiko Kopa: "Sentsazio onekin amaitu dut mendi denboraldia, eta, orain, errepideko lasterketak eta krosak ditut buruan", adierazi du durangar gazteak, sare sozialetan. Gorbeia Suzien proban Durangaldeko hainbat korralari nabarmendu ziren. Juniorretan, Ander Gerrikaetxebarrria zornotzarra sailkatu zen Marañonen atzetik. Gainera, sailkapen orokorrean, biak podiumera igo ziren, bigarren eta hirugarren tokian.

Gizonen eta emakumeen senior mailan, aurreneko hamarren artean sailkatzea lortu zuten Beñat Ormaetxeak, Xabier Garatek, Irati Axpek eta Zuriñe Orue Mazagak. Kadeteetan, Aitor Ajuria otxandiarrek irabazi zuen 17 kilometroko lasterketa.

ADITUAREN TXOKOA

JUAN CARLOS PEREZ

Areto futbola



Azkenean batuta?

Bizkaiko areto futbolak bere interesak defendatzeko, azkenean, pauso bat aurrera eman duela ematen du. Bizkaiko federazioaren aldetik jasaten duen gutxiespenaren aurrean, klubetako buruek areto futboleko batzorde bat eratu dute azken hileetan Bizkaiko klub denen artean.

Federazioan klubak, jokalariek, entrenatzaileak eta zergatik ez, epaileak ordezkatu eta defendatuko dituen ahots bakar bat izateko bidean, lehen pauso garrantzitsua da klubaren arteko batasun hori.

Federazioetako batzarrak areto futbolari ematen zaion garrantzi eskasaren adibide argia dira. Batzar horietan, apenas egiten da berbarik gure kirolari buruz. Futboleko pariak bagina moduan sentitzen gara, mespretxatuta. Munduko ligarik garrantzitsuenetako batean gaudela ahazten zaie.

Beraz, egin dezala aurrera sortu berri den batzordeak, behar den moduan erabilia, gure interes amankomunak defendatuz, eta nork bere interesetan erabiltzeko tentazioen erori gabe.

Momentuz, WhatsApp talde bat sortu da, batzarra deitzeko, informatzeko, lagunarteko partiduak adosteko zein mediku hitzorduetarako eskaretan laguntzeko (azken hau gai lotsagarria da, eta zutabe oso bat merezi du) erabiltzen dena. Egia esanda, oso ondo funtzionatzen ari da, eta tresna erabilgarria bihurtu da. Baina, momentuz, barne erabilpenetarako bakarrik. Pauso bat aurrera eman, eta batzordea federaziorako baliozko bitartekari bihurtu dadin borrokatzeko unea da.

*Erredakzioan itzulia

Bizikletan zein oinez, Garaiko martxa, bihar

Garai eta inguruko parajeak zeharkatuko dituzte

> MENDI MARTXA J.D.

Garaiko Triatloi Taldeak mendi martxa antolatu du, zapatarako. Bizikleta eta oinezko ibilbide bana prestatu dituzte. Iazko lehenengo aldiagaz alderatuta, ibilbideak dezente aldatu dira. Garai eta inguruko parajeak ezagutaraztea, eta parte-hartzaileentzat ibilbide erakargarriak diseinatzea izan dute helburu.

Mendi bizikletako martxa 10:00etan hasiko da, plazan; 32 kilometro eta 1.200 metroko desnibel positiboa ditu. Iurretatik, Oizko parke eolikotik eta San Kristobal ermitatik, eta Mauma

ingurutik ibiliko dira bizikletariak, goizean zehar. Oinezko ibilbidea 08:30ean hasiko da, eta 22 kilometroko luzera izango du. Besteak beste, Oizetik ibiliko dira (antenak, San Kristobal) eta Oiz atzealdetik —Trabakua ingurutik— itzuliko dira Garaia. Une batean, soka batekin lagunduta, bost metroko malda igo beharko dute parte-hartzaileek; edonork egiteko modukoa da antolatzaileen esanetan.

Izen-ematea egunean bertan (20 euro) edo aurretik egin daiteke www.garaitt.com gunean, barrikuko 22:00 arte (10 euro).

Sorginen Lasterketa eta atletismo eguna, asteburuan

Durango Kirol Taldeak antolatuko ditu ekimen biak

> KORRIKA J.D.

Durango Kirol Taldeak lan eskergea egin beharko du asteburuan, zaleek gozatu dezaten. Zapatuan, atletismo eguna, eta domekan, Sorginen Lasterketa antolatuko dituzte.

Atletismo eguna Durangoko Ezkurdin izango da, 18:00etatik aurrera. Desafio berezi bat antolatu dute: patinetan ala korrika egiten dira azkarrago 100 metro? Galdera horri erantzuteko, David Gutierrez nazioarteko patinatzailea —Kubako selekzioagaz dihardu— eta Orkatz Beitia korrikalaria nor bai-

no nor gehiago jarriko dituzte distantzia horretan. Gaztetxoei begirako ekintzak ere izango dira; 17:30etik aurrera egin daiteke izen-ematea.

Sorginen Lasterketa Axpen hasiko da, domekan, 10:00etan. Gizonetan iazko podiuma osatu zuten korrikalariak etorriko dira: Oier Ariznabarreta, Julen Ozaeta eta Ekaitz Kortazar. Emakumeetan 2013ko irabazle Silvia Trigueros eta Oihana Kortazar datoz. 25 km-ko lasterketa da. Izen-ematea gaur gauerdira arte egin daiteke www.kirolprobak.com webgunean.



HEKI
HERRI KIROL KLUBA
- 656 782 552 -
heki.iurreta@gmail.com

Umeentzako
erakustaldiak eta antolaketak

clínicadental hortzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria



RPS: 145-13

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK



Goizeko 08:00etatik gaueko 21:00etara ZABALIK

muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com



GREMIOEN GIDA



DEKORAZIOA



GARBIKETA



LOREZAINNTZA

Jaio barnizatuak

- Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrealdean eta era askotariko altzarien lakadura.
- Pintura eta pintura apaingarriak.
- Era guztietako zaharberritzeak egiten ditugu.

Eitua Industriadun, 45 Garain A - Berriz
Tel.: 946 824 143 - 658 758 421
Faxa: 946 824 895 - info@jaiobarnizatuak.com

AZKARGI
GARBIKETAK

Bulegoetako eta industrietako mantentze-lanak
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta abar

Goietia, 10 - 2 esk. - ELORRIO
Tel.: 946 820 991

Jardines Patxi Lorategiak

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Montevideo, 23, 1. ezk. PATXI
48200 DURANGO 696 463 085



ITURGINTZA

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com



Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK.
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net



Profesional onenak zure zerbitzura!

Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behea • 946 816 423
48200 DURANGO • Bizkaia

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN

- DURANGO: 1, 2 eta 3 logelako etxebizitzak alokagai. 575€-tik aurrera.

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

- TABIRA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoa kanpora begira. Garaje itxia.
- MIKELDI: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, 2 komun eta egongela. Ganbara eta garajea. Berriztatua.
- FRANZISKO IBARRA: 4 logela, 2 komun, sukaldea, despentsa eta egongela balkoiarekin.
- MURUETA TORRE: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Garajea eta trastelekua.
- KALEBARRIA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 120.000€.
- ARTEKALE: 8 etxebizitza eraikitzen. 1 eta 2 logelakoak. Trastelekuarekin. 128.000€-tik aurrera.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatuko. Zonalde onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.

ATXONDO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. 3 balkoi. Garaje itxia.
- 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea eta trastelekua. Berria ematen du.

LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta frontoia.

ABADIÑO

- ITURRITXO: Logela bakarreko apartamentua. Sukalde amerikarra-egongela, komuna eta eskegitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trastelekua.

LUR SAILAK SALGAI

ABADIÑO

- Bifamiliarra eraikitzeko 1.000 m2-ko lursaila salgai. Zonalde egokia.

BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila. Sarbide ona.

MATIENA-ABADIÑO

- 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta frutarbolekin.

IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

ABADIÑO

- Bifamiliarra eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai. Informazio pertsonalizatua.

EUBA

- 3000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. 2 lurzati bakoitzean bifamiliarra eraikitzeko aukerarekin.

ZORNOTZA

- LARREA: 27.000 m2-ko lursaila.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

- ABADIÑO: Gaztelua. Baserría. Arku ederrekoa sarreran. 20.000 m2-ko lursaila baserri ondoan.
- BERRIZ: 1.200 m2-ko lursailan kokatutako txaleta, Abeltxe kalean. 4 logela, 3 komun, sukaldea eta egongela. Garajea.

ETXEBIZITZAK SALGAI

ERRETENTXU 130.000€



- 73 m2. Logela 2, komuna, bainugela, egongela, sukaldea eta eskegitokia. Berogailua. Igogailua.

PINONDO 195.000€ / Negoziagarria



- 67 m2. Ikuspegi ederrak. Etxe osoa kalera begira. 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Berogailua. Igogailua.

ASKATASUN ETORBIDEA 159.000€



- 3 logela, egongela, sukalde jantzia, despentsa eta komuna. Igogailua.

KURUTZIAGA 125.000€ / Negoziagarria



- 3 logela, sukalde-egongela eta komuna. Balkoia. Ganbara. Berogailua. Igogailua.

ASKATASUN ETORBIDEA 210.000€



- 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Guztiz berriztatua. Igogailua.

www.inmoduranguesado.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

- ANDRA MARIA: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 2/4 logela eta 2 komun.
- ANDRA MARIA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 2 terraza handi.
- ARAMOTZ: Halla, 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- ARTEKALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- ASTOLABIDE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- LANDAKO ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoi 2. Garajea eta trastelekua.
- BARRENKALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia.
- ERROTARITXUENA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Terraza 2. Garajea aukeran eta trastelekua.
- ERRETENTXU: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Garajea aukeran.
- EZKURDI: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Garajea aukeran eta trastelekua.
- EZKURDI: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta komuna.
- F.J. ZUMARRAGA: Halla, egongela, egongelatxoa, sukaldea, 3 logela eta komuna.
- FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea aukeran.
- GALTZARETA: 5 logela, sukaldea, egongela, komun 2 eta bainugela 2. Portxea. Garajea eta trastelekua.
- GOIENKALEA: logela, sukalde-jangela eta komuna. 2 terraza. Trastelekua.
- JOSE ANTONIO AGIRRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- JUAN ITZIARKO: 2 logela, sukaldea, egongela, komuna eta despentsa.
- JUAN ITZIARKO: 2 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Lursailarekin.
- JUAN MARI ALTUNA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- KIRIKIÑO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- KOMENTUKALEA: 2/4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Trastelekua.
- MIKELDI: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- MONTEVIDEO: 2/3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Terraza.
- MUGARRA: 3 logela, sukaldea, egongela, komuna eta bainugela. Balkoia. Trastelekua.
- PLATERUEN PLAZA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea.
- SAN AGUSTIN: 5 logela, sukalde-jangela, egongela eta 3 komun.
- SAN FRANTZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Terraza.
- SAN IGNAZIO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- SASIKOA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- SASIKOA: 4 logela, sukalde-jangela, egongela eta komun 2. Balkoia. Trastelekua.
- TABIRA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Despentsa. Balkoia.
- UNDATORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- URKIAGA TORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Trastelekua.
- ZEHARKALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.

Etxebizitza gehiago salgai Matienan, Abadiñon, Berrizen, Zaldibarren eta Otxandion, besteak beste.

ETXEBIZITZAK SALGAI

MURUETA TORRE



- 3 logela, komun 2, egongela eta eskegitokia. Terraza. Ganbara. Garajea. Eguzkitsua. Ikuspegiak. **280.000€.**

FKO. IBARRA



- 110 m2. 3 logela, 2 komun, egongela eta sukalde handiak. Ganbara eta garajea. **275.000€.**

BERRIZ - B. GABIOLA



- 110 m2. ERDI BERRIA. 3 logela, komun 2, egongela eta sukalde eskegitoki eta guzti. Trastelekua eta garajea.

IPARRAGUIRRE



- Etxebizitza altua. 98 m2. 3 logela, komun 2, egongela, sukaldea eta eskegitokia. Trastelekua eta garaje itxia. **271.000€.**

SAN INAZIO



- 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela terrazarekin. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua. 246.000€.

SAN INAZIO



- 116 m2. 3 logela, komun 2, egongela eta sukalde handiak. Ganbara. Eguzkitsua. **256.000€.**

LOKALAK ETA ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN. KONTSULTATU.
www.inmoetxetxo.com

anboto.iragarki-laburrak.com

1 HIGIEZINAK	5 IBILGAILUAK
2 TEKNOLOGIA	6 HARREMANAK
3 LANA/NEGOZIOAK	7 AISIA/KIROLA
4 DENETARIK	8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzat - Erregistratu www.anboto.iragarki-laburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezuac: anboto@anboto.org.

Paperean, ordainduta: Enpresentzat - Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Durango. Durangoko Alde Zaharrea etxea salmentan. Duela 6 urte erabat berriztatua. Gas instalazioarekin. Erabat jantzita. Kapritxoz jarria. Tel.: 659 425 890
Posta: aotxtorena@yahoo.es.

Durango. Durangoko Alde Zaharrea, Artekalen, berriztatuko premia duen pisua salgai (3. Pisua). Tel.: 627 819 054.

Leketitio. Lekeitioko Narea kalean (Arranegin) atikoa salgai. Duela 3 urte erabat berriztatuta. Gas instalazioarekin. Kapritxoz. Tel.: 619-86 40 00

Mallabia. Aukerakoa, nekazaritzarako edo nekazaritzaturismorako, toki eguzkitsua eta ederra, 20.000 m2 lursail. Prezio egokia, ikusi nahi baduzu, deitu 655-70 26 47 telefonora (19:00-21:00). Nahi izanez gero, aukera egon badago lursail gehiago eskuratzeko.

ERRENTAN EMAN

Berriz. Berrizen, pisua alokatzen da. 3 logela, igogailua, garajea aukeran. Egoera onean. Erdi jantzita. Oso egoera onean. Tel.: 675 719 363.

Berriz. Berrizen pisua alokatzen da, herri erdian. Tren eta autobus geltokitik bi minutura. Interesatuek deitu. Tel.: 609 175 333.

Elorrio. Elorrioren apartamentua alokagai herri erdian, logela bat, sukaldea-egongela, bainugela, trastelekua, berogailua-gasa. Eguzkitsua eta bizitzera sartzeko prest. Gaez. Tel.: 94-682 04 38.

ERRENTAN HARTU

Durango. Errentan hartzeko pisu bila nabil, Durangon. Bizpahiru logelakoa. Tel.: 634 781 670 / 94 681 41 51.

PISUA KONPARTITU

PISU BILA

Durangaldea. 26 urteko irakaslea

naiz, eta 2015-2016 kurtsorako pisu bila nabil Durangaldea. Ahal izanez gero, adin beretsuko jendearekin konpartitzea gustatuko litzaidake. Interesaturik egonez gero, lehenbailehen kontaktuan jarri, mesedez! (ainhotxu@gmail.com).

PISUKIDE BILA

Iurreta. Iurretan pisukide bila nabil. Tel.: 626 156 817.

GARAJE / TRASTEROAK

ERRENTAN EMAN

Durango. Durangon garajea alokatzen da (Askatasun Etorbidea, 20). Tel.: 946 813 033 // 628 843 118.

Durango. Kalebarrian aparkaleku plaza bat alokagai. Tel.: 627 819 054.

LURSAILAK

ERRENTAN EMAN

Atxondo. Axpeko Martza auzoan 20.000 m2-ko hormigoizko zola, lursail zati bat, eta bertan dagoen baserri zahar baten korta alokatzen dugu. Prezioa, 550 euro hilabetean. Tel.: 675 244 100.

Teknologia

INFORMATIKA / BIDEOJOKUAK

GAINERAKOAK

Web orrialdeak egiten dira. Web orrialdeak egiten dira. Prezio onean eta kalitate bikainean. Tel.: 649 314 548.

Lana - negozioak

LAN ESKARIAK

OSTALARITZA

Durango. Gazte euskalduna tabernari lanak egiteko prest. Tel.: 688 661 958.

PERTSONAK ZAINDU

Durango. Neska gazte euskalduna umeak zaintzeko edota etxerako lanak egiten laguntzeko prest. Erizaintzan graduatua, EGAduna. Tel.: 685 737 015
E-posta: anearbeo@hotmail.com.

Durango. Lan bila nabil pertsona

nagusiak eta umeak zaintzen. Garbiketan ere jarduten dut. Orduka zein lanaldi osoa. Gauetan ere bai. Tel.: 632 163 782.

Durango. Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Garbiketan ere aritzen naiz. Goizez, arratsaldez, asteburuetan eta gauetan. Esperientziagaz. Tel.: 672 508 356.

Durango. Nagusiak zaintzen lan egin nahi dut, barruko langile moduan. Tel.: 610 804 282.

Durangaldea. Esperientziadun emakume arduratsua prest dago pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Etxeko lanak ere egiten ditut, orduka zein lanaldi osoa, barruko zein kanpoko langile moduan. Gauetan ere bai. Tel.: 627 284 874.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Etxe garbiketan jarduten dut. Orduka, lanaldi osoa, erdia zein gauz. Tel.: 648 785 363.

Durangaldea. Emakume arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Etxe garbiketan jarduten dut. Orduka, lanaldi osoa, erdia zein gauz. Tel.: 632 632 416.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Etxe garbiketan jarduten dut. Orduka, lanaldi osoa, erdia zein gauz. Tel.: 632 989 787.

Durangaldea. Emakume arduratsua eta erreferentziarekin pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest; etxeko lanak ere egiten ditut. Tel.: 659 088 185.

Durangaldea. Emakume bat lan bila nagusiak zaintzeko. Telf.: 610 804 282.

Durangaldea. Lan bila nabil, pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Goizez zein arratsaldez. Etxea garbitu. Tel.: 650 575 127.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak

zaintzeko. Goizez zein arratsaldez. Etxea garbitu. Tel.: 676 939 990.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Garbiketan ere jarduten dut. Barruko zein kanpoko langile moduan. Paperekin. Tel.: 678 340 649.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Garbiketan ere jarduten dut. Barruko zein kanpoko langile moduan. Paperekin. Tel.: 663 513 721.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Garbiketan ere jarduten dut. Barruko zein kanpoko langile moduan. Paperekin. Tel.: 697 313 358.

Durangaldea. Dementia edo alzheimer gaixotasunentzako psikoestimulazio kognitiboa eskaintzen da. Laguntza psikologikoa zainzaileei edota familiakoei. Psikologo euskalduna eta esperientziaduna. Tel.: 679 382 369.

IRAKASKUNTZA

Abadiño. Klase partikularrak emateko prest, Lehen Hezkuntzako eta Batxilergoko bigarren mailako ikasleei, Abadiñon eta inguruetan. Tel.: 656 315 120.

Durango. Neska euskalduna naiz, psikologian lizentziatuta dagoena, eta EGA tituluduna. Lehen Hezkuntzako haurrei eskola partikularrak ematen bi urteko esperientzia dut. Eskola partikularrak emateko prest nago astearte eta ostegun arratsaldetan. Nahi izanez gero, deitu zerbaki honetara. Tel.: 685 771 390.

Elorrio. Administrazio eta enpresa zientzietan lizentziaturiko neska euskalduna klase partikularrak emateko prest. Bai Durangaldea bai Eibar inguruan. Tel.: 648 752 646.

Durangaldea. Eskolaz kanpoko indartze saioak Lehen Hezkuntza, DBH zein Batxilergo mailetarako. Esperientzia zabala. Tituluak: inge-

niari teknikoa eta Haur Hezkuntzan graduduna atzerriko hizkuntzak espezialitatearekin. Tel.: 645 704 033.

Durangaldea. Psikologo euskalduna ikasketa arazoetan laguntzeko prest. Irakurmen-idazketa arazoak. Hiperaktibitatea eta antsietatea. Tel.: 679 382 369

LAN ESKAITZAK

OSTALARITZA

Durango. Durangon neska bat behar da kafetegi batean lan egiteko. Lanaldi erdia. Tel.: 650 246 943.

IRAKASKUNTZA

Durangaldea. 2. Batxilergoko neska euskalduna naiz, eta ingeleza erakutsiko didan norbait bilatzen nabil, maila ona beharrezkoa. Tel.: 94-621 82 57.
dudagoitaleire5@gmail.com

GAINERAKOAK

Durangaldea. Makineria alokatzen duen enpresa batek mekanikari-biltegizaina behar du (dumperra, hondeatzailea, eskorga, mailua, ebakitzaileak...). Formazioa edo esperientzia izan behar du. Interesatuek bidali curriculumak alkimax@alkimax.net helbidera.

Denetarik

SALDU / EROSI

Latxa arrazako ahari bat erosi. Latxa arrazako ahari bat erosi nahi dut. Tel.: 94-621 82 57.

ERRENTAN

Autokarabanak - karabanak. Autokarabanak-karabanak gordetzen ditugu Elorrioren herrian bertan (ez dago aterperik), prezio onean. Tel.: 656 779 329 (edo WhatsApp)

Aisia - kirola

KIROLAK

SALDU

Umeen bizikleta bat salgai. Umen bizikleta bat salgai (14') Orbea marka. 30 euro. Tel.: 679 682 974.

PLATERUENA

Landako Hiribidea, 4A

946 030 300

www.plateruena.eus

ETXEKO GOSARIAK

Astehenetik ostiralera
9:00 etatik aurrera

IGANDEETAKO MENU BEREZIAK

Astehenetik larunbatera eguneko menua

BIZKOTXOAK

TOSTADAK

PINTXOAK

CROISSANT-AK

AGENDA

ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Urriaren 3an, 20:00etan, Berrizko kultur etxean

Arren ganbara eta emeen sotoa

Atx Teatroa taldearen antzezlan da 'Arren ganbara eta emeen sotoa', aktore taldean Eneko Sagardoy durangarra duena. Luis Riaza madrildarrak idatzitako festua dauka obrak, eta zuzendari lanetan diharduen Iñaki Ziarrustak egindakoa da itzulpena eta egokitzapena.



Jaiak

:: ELORRIO (Errebonbilloak)

URRIAREN 4an

05:00etan, errebonbilloen goizaldeko kalejira.

11:00etan, nesken gomazko paleta zirkuitua eta lagunarteko beste partida bi.

13:15ean, txistu kontzertua, plazan: Durangoko Jaizale Txistu taldea, Durangoko metalen taldea, eta abeslari bakarlariak.

17:00etan, alardea eta dantzak, plazan.

:: IURRETA

URRIAREN 2an

16:30-18:30, umeentzako tailerrak, Askondon.

18:30-20:30, helduentzako tailerrak, Askondon.

19:30ean, poteoa, Oxabi taldeak alaiturik.

22:00etan, 'Danza Oriental, tribal y Bollywood' ikuskizuna.

22:00etan, profesionalen pilota partidua, Olaburun: Berasaluze-Aretxabaleta, Urrutikoetxea-Zabala.

22:30ean, Durangaldeko musika taldeen kontzertua: Kohatu, Saliva, Baghdad eta Ganorabakuek.

URRIAREN 3an

11:00etan, XVI. Bizikleta Festa. Irteera eta helmuga, Olaburu frontoian.

12:30ean, poteoa.

14:30ean, bazkari herrikoa, Askondon.

17:30ean, zezen mekanikoa, Askondon.

19:30ean, poteoa, Polekeleke txarangak alaiturik.

22:00etan, bertsolariak: Sustrai Colina, Unai Iturriaga, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Jon Maia eta Igor Elortza.

00:00etan, erromeria, Luhartz taldeagaz.

URRIAREN 4an

10:00-14:00, igel txapelketa.

10:30ean, dantzari eta agintarien kalejira, Montoitik.

11:00etan, meza nagusia. Dantzari-dantza eta gorulari dantza, eta herri kirolak.

12:30ean, bakailao txapelketa.

14:30ean, aurkezpena.

18:30ean, dantza saioa. Oreretako Ereintza eta lurretako Dantzariak. Ondoren, jaietako errifen zozketa.

20:30ean, herri afaria, Arantzak eta Pantxok alaiturik.

22:00etan, Jaien amaiera ohiturazko bertsoak kantatuz. Erromeria eguerdira arte.



Antzerkia

:: BERRIZ

URRIAREN 3an

20:00etan, 'Arren ganbara eta emeen sotoa' Kultur Etxean.

URRIAREN 9an

20:00etan, 'Auzokoak', umeentzako antzezlan, Kultur Etxean.

:: DURANGO

URRIAREN 3an

20:00etan, 'Ahora' clown ikuskizuna, San Agustinen.

:: ELORRIO

URRIAREN 2an

22:00etan, 'Kreditua' Arriolan.

:: ZORNOTZA

URRIAREN 2an

21:00etan, 'Ligeros de equipaje. Crónica de la retirada', Zornotza Aretoa.



Bakarrizketa

:: DURANGO

URRIAREN 3an

22:30ean, Miki Nadal 'Mikipedia' ikuskizunagaz, Plateruenean.



Ondarearen jardunaldiak

:: BERRIZ

URRIAREN 25ean

10:30ean, gaztelaniaz, eta **11:00etan**, euskaraz, 'Arrierreka, ibai baten energia', Ereña jatetxeko aparkalekutik aterata.

:: DURANGO

URRIAREN 8an

16:00etan, 'Industria metal-mekanikoaren lehena, oraina eta geroa' berbaldia eta bisitaldi gidatua, IK4-Azterlan-en hasita.

:: ELORRIO

URRIAREN 30ean

19:00etan, Jesus Muñiz Petralandaren 'Burdinazko zimenduak dituen ondarea' berbaldia, kultur etxean.

:: GARAI

URRIAREN 17an eta 18an, eta 24an eta 25ean

11:00etatik 14:00etara, eta **14:00etatik 17:00etara**, 'Burdina eta lanabesak' erakusketa.

:: IURRETA

URRIAREN 18an

21:00etan, 'Burdinolak, erremetaldegiak eta galdategiak' berbaldia eta bisitaldi gidatua, Ibarretxe kultur etxean.

:: MAÑARIA

URRIAREN 17an

17:00etan, 'Mitologia, burdina eta bidea': bisitaldi gidatua eta **19:30ean**, organo kontzertua.

:: OTXANDIO

URRIAREN 4an

10:30ean, gaztelaniaz, eta **12:30ean**, euskaraz, 'Vulkano, burdinaren eta suaren jainkoa, Otxandion' bisitaldi gidatua, plaza nagusian hasita.

:: ZALDIBAR

URRIAREN 11n

12:00etan, Igor Goñi Mendizabalen berbaldia: 'Eta burdina arma bihurtu zen', liburutegi zaharrean.

:: ZORNOTZA

URRIAREN 7an

19:00etan, Jose Angel Fernandez Carvajalen berbaldia: 'Burdinazko Zornotzan', Zelaletan.

* Informazioa eta erreserbak: 673 005 981 telefonoan eta 'ejardunaldiak@gmail.com'.

URRIKO AGENDA

5

IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA – Gizarte Ongizatea
18:15 Emakumeen literatur tailerra.

6

IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA
18:30 En français "L'enfant de sable".

9

IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA
BULARRETIK MINTZORA-IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA
17:00 Haur Hezkuntzako 3, 4 eta 5 urteko gelakoak.
18:00 Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailak.

13

17

ANDEREBIDE EMAKUMEEN ELKARTEA
ENKARTERRIETARA TXANGOIA
Izen-ematea: urriaren 13tik 17ra.
Informazio gehiago: Tel.: 616 490 506.

14

DURANGOKO AMANKOMUNAZGOA
NAGUSIEN EXEAN
16:00 Hitzaldia: "Osasun parkeak pertsona nagusientzat".

15

DURANGOKO AMANKOMUNAZGOA
PARKEAN
16:00 Saio praktikoak.

16

DURANGOKO AMANKOMUNAZGOA
PARKEAN
16:00 Saio praktikoak
ANDEREBIDE EMAKUMEEN ELKARTEA
19:00 Batzar Nagusia.

20

IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA
17:30 Irakurleen kluba "Memoriak: Mikel Laboaren biografia bat".
19:00 Club de lectura "Lejos de Ghana".



:: DURANGO | ZUGAZA

Regresión

- barikua 2: 19:30/22:00
- zapatua 3: 17:00/19:30/22:30
- domeka 4: 18:30/21:00
- martitzena 6: 20:00

Las Bodas de Figaro (opera HD-an)

- astelehena 5: 19:45

2. ARETOA

Hitman. Agente 47

- barikua 2: 19:30/22:00
- zapatua 3: 17:00/19:30/22:30
- domeka 4: 18:30/21:00
- astelehena 5: 18:30
- martitzena 6: 20:00

Regresión

- astelehena 5: 20:00

:: ELORRIO | ARRIOLA

Film sozialak

- zapatua 3: 22:00
- domeka 4: 20:00
- astelehena 5: 20:00

:: ZORNOTZA | ZORNOTZA ARETOA

El desconocido

- zapatua 3: 22:00
- domeka 4: 20:00
- astelehena 5: 20:15

Retratos de familia

- martitzena 6: 20:00

Ricki

- eguena 8: 20:15

Pixels


- domeka 4: 17:00



> BOTIKAK

BARIKUA, 2 09:00-09:00	De Diego Intxaurrondo 22 - Durango	09:00-22:00	09:00-22:00
Navarro Artekaleara 6 - Durango	Balenciaga Ezkurdi plaza 8 - Durango	Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
09:00-22:00	Irigoien Bixente Kapanaga 3 - Iurreta	22:00-09:00	EGUAZTENA, 7 09:00-09:00
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	Jaio-Olabarrieta Errekakale 6 - Elorrio	Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier Txiki Otaegi 3 - Zornotza	Gaztelumendi J.A. Abasolo 2 - Durango
22:00-09:00	Bartolome Gabiola 2 - Berriz	ASTELEHENA, 5 09:00-09:00	Guarrochena, Lide Bide Zahar 14 - Zornotza
Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier Txiki Otaegi 3 - Zornotza	Guarrochena, Lide Bide Zahar 14 - Zornotza	De Diego Intxaurrondo 22 - Durango	09:00-22:00
ZAPATUA, 3 09:00-09:00	Melero, Rosa Mari San Pedro 31 - Zornotza	Guarrochena, Lide Bide Zahar 14 - Zornotza	Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Sagastizabal Askatasun etorb. 19 - Durango	09:00-22:00	09:00-22:00	EGUENA, 8 09:00-09:00
09:00-13:30	Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	Mugica (Andra Maria 9 - Durango)
Navarro Artekaleara 6 - Durango	22:00-09:00	MARTITZENA, 6 09:00-09:00	Guarrochena, Lide Bide Zahar 14 - Zornotza
Bazan Diaz, Valentín Urribarri 5 - Durango	Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier Txiki Otaegi 3 - Zornotza	Campillo Montevideo etorb. 24 - Durango	09:00-22:00
Campillo Montevideo etorb. 24 - Durango	DOMEKA, 4 09:00-09:00	Guarrochena, Lide Bide Zahar 14 - Zornotza	Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Unamunzaga Muruetatorre 2C - Durango	Bazan Diaz, Valentín Urribarri 5 - Durango		


> ESKELAK



V. URTEURRENA

ANTON UBERUAGA ZABALA
"Txatue"

*5 urte, gaur da egune...
hegaz aldegin zendune,
gure Txatue lagune!
Zugaz igaro genduzan hainbat
momentu on eta une,
jasoz zure maitasune,
estimuz hartzen gendune...
Geugan gordetzen dogune!*



Etxekoak, Mallabian, 2015ko irailaren 28an.

> ZORION AGURRAK

✉ zorionak@anboto.org
eguziteneko 14:00ak arteko epea



> Gure etxeko neskatok 5 urte betetzen ditu! Zorionak aitite, amama, aita eta amaren partez. Maite zaitugu.



> Irati Areitiok urteak bete ditu urriaren 1ean. Zorionak eta mosu handi bat etxekoan eta Ijorretako koadrilaren partez!



> Zorionak **Xabatxo!** Bizitzako lau urterik onenak pasa ditugu zurekin. Segi alai eta zorionsu. Musu handi bat amatxo eta aitatxoren partez.



> **Aiorak** 6 urte bete ditu irailaren 30ean. Zorionak eta mosu handi bat aita, ama eta Oierren partez!



> **Maddik**, urriaren 2an eta **Jokinek**, urriaren 6an urteak betetan dabaz. **ZORIONAK** eta mosu handi bat



Ermodo, 11 - DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
f Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Malen** (602 znb.)!
Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.



beharsarea

Zure herrian lana euskaraz

Umeak zaintzeko edo eskola partikularrak emateko **prest nago.**



Lana behar dut









Hementxe duzu...
www.beharsarea.net

“Errebonbilo moduan behin irten denak errepikatu egiten du”

Urriko lehenengo domekan irteten dira Errebonbiloak, Elorri; Mikel Mendizabal izango dute kapitain

> AKUILUA A. B.
Lehengusuak animatuta sartu zen Errebonbilo Mikel Mendizabal. Badira hamabi urte. Astebetean ikasi zuen aurrekua, eta gustua hartu zion. Bi urtera, kapitain hasi zen, eta oraindik ez du lekukoa ematerik izan. Etzi du hiztordua hartuta.

Hamar urte egingo dituzu Errebonbiloen kapitain. Erantzukizun handia da? Ez! Lehenengo urtean, urduritxo egongo nintzen, baina, behin martxa hartuta... Aurretik, urte bian errebonbilo ere izan nintzen.

Zaila egin zitzaizun martxa hartzea?
Ez. Buruan dena antolatuta izatea da gatxa. Materiala eta behar dena jartzeko pautak batzuk ditu udalak. Baina beste ezer ez dago zehaztuta. Hasi nintzenez, azken orduan egiten zuten dena. Gero, arau batzuk ipini nituen: dantzan erakustea, entseguak aurretik hastea...

Kapitainaren lana da hori?
Batzuetan txistulariak egin izan du, besteetan kapitainak. Dantzaria izanik, erakusterako orduan, pautak

batzuk jartzen saiatu naiz ni, erraztasunak emateko.

Zein da, ba, kapitainaren lana?
Errebonbiloak tiroak jo behar diren tokietara eroatea. Tiroa noiz eta nola jo agintzea.

Eta esana betetzen dute?
Plazan bai, entseguetan... Ez dira dantzariak. Baina, saiatzen gara ahal dena erakusten. Nahikoa egiten dute (barrez).

Anekdotarik kontatzeko?
Lehendik entzundakoak

ko, baina, nigaz oso formalak izan dira. Iaz, errebonbilo bat ez ei zen arratsaldeko saioa egiteko gauza. Gaixorik zegoela zioen. Bai zera! Gaupasa eginda etorri zen! Urteetan errebonbilo irtendako bat topatu genuen Tangerren, eta animatu zen plazara irteten.

Parrandazale fama duzue.
Hala da. Hori da gantxoa jendearendako.

Nola joaten da eguna?
Goizean, 05:00etan hasten gara. Kanean 12 tiro jo, eta Tangerren gosaria izaten dugu. Alkatearen etxera joaten gara gero—han ere mokadua izaten dugu—. 16:00etan elkartzen gara berriro, errosarioa amaitzen deneko prest egoteko.

Prozesioagaz joaten gara gero, eta, Ama Birjinaren irudia gorde ostean, plaza heldu aurretik, azken tiroak botatzen ditugu. Plazan armak utzi, eta dantza saioa hasten da.

Gero, parranda?
Bai, poteoa.

Tangerren afaldu, eta biharamunean, lanera.

Heria iratzartzen duzue.
Bai. Baliteke norbait gogaitzea, baina, ez dugu kexarik jaso. Orokorrean, ondo hartzen dute. Batez ere, arratsaldeko saioa. Beharbada, goizaldekoa ez hainbeste.

Elorriar denek errebonbilo izan beharko lukete, bizitzan behin behintzat?

Bai. Durangaldean, herri guztietan egiten zen arma-aurreketea, eta Elorri ohitura hori mantendu edo berreskuratu dugu. Mito batek dioen arabera Lepantoko gerra amaituta, Amandarroko bi anaia etorri zirela tiroak joaz, eta Errosario Ama Birjinaren eguneko salbekin batu ziren. Bizkaian mantentzen den arma alarde bakarra da. Polita izaten da. Gainera, behin irten denak errepikatu izan du.

Hori bai, dantza ikasi behar...
Banan-banako, arin-arina eta fandangoa denok egiten ditugu. Erdi bildurrez etorri da nor edo nor; baina, abildadea gorabehera, moldatzen gara.

Kapitainak aurrekua ere bai.
Bai, eta bati irakasten nabil, erreleboa emateko. Oso ondo dabil! Ea aurpegi berriak ikusten ditugun laster, plazan.

Neskek ere irteten dira...
Bai. Aurten bi; hirugarren bat ere prest zegoen. Urtero, 3-4 irten dira. Ohitura kontua ere bada. Ateak zabalik dituzte!



LAUHORTZA

JON ANDER RAMOS
Historialaria



Felipe VI.a

Edo akaso Letizia erregina izeneko hiribideak aurkitzea seguru ez dela zaila izango etorkizunean, nahiz eta 2007an Izen Geografikoen Normalizazioari buruzko Nazio Batuen 9. Konferentziak toponimoak kultura-ondare ukiezin direla zehaztu.

Durangerriko zenbait udalkek euren ondare toponimikoa zaintzen, eta balioan jartzeko esfortzu itzelak egin dituzte, tartean Durangok ere. Lan horren aurkezpenean, alkatearen hitzok biltzen dira: “...leku-izenak laguntza ezinbestekoa dira, udalak etorkizunean izendatu behar dituen kale, industria-poligono eta edozein eratako erakinei lekuan lekuko jatorrizko izena jartzeko...gure kultur ondarearen harribitxi ezin preziatuagoak... aski ezagunak batzuk, eta zokoratu samarrak beste batzuk. Guztion ardura da ahantzuraren geruzaz ez esaltzea...”

Udalbatzak hartutako erabakiaren ostean, aurrerantzean, emakume izenak lehenetsiko direla izendatuko diren hurrengo kale, plaza, parke, etab., arestian aipaturiko Nazio Batuen konferentziak pertsona izenen erabilera murrizten du: 1) bizi direnen izenen erabilera galaraztea, eta, 2) omendutakoak hiltzen direnetik erabili arte gutxieneko epe bat jartzea. Hortaz, zeozer gaizki egiten gabiltz. Konturatu gabe, berdintasunaren izenean, herriaren ondarea zokoratzen jarraitzen dugu. Agian ez da momentua iraganean jarritako izenak berpentsatzeko, ezta Eneritz Iturriaga ziklistak kale izena merezi duen ala ez. Dena den, etorkizunean antzeko akatsetan ez erortzeko, aukeran Kartzak kalea nahiago Felipe VI. hiribidea baino.

click&drive
EROSKI online



¿Bizkaiko online erosketarik azkarrena probatu nahi duzu?

Erosi onlinen eta jaso eskaera autoarekin Abadiñoko hipermerkatuaren gasolindegian

